

GOIERRITARRA

HAMABOSTEKARIA

59. zenbakia

94ko abenduak 2



*Ormaiztegiko
festei errepaso*

Abiadura haundiko CAF

SARRERAK

OHIZKO LEKUETAN SALGAI
AURREZ: 1000 pzta.
40 libera.
EGUN BEREAN: 1200 pzta.
52 libera.
HAURRAK: 300 pzta.
12 libera.

ANOETAKO
BELODROMOAN.

500

600

700

800

900

1000

1100

1200

1300

1400

1500

1600

1700

1800

1900

2000

2100

2200

2300

2400

2500

2600

2700

2800

2900

3000

3100

3200

3300

3400

3500

3600

3700

3800

3900

4000

4100

4200

4300

4400

4500

4600

4700

4800

4900

5000

5100

5200

5300

5400

5500

5600

5700

5800

5900

6000

6100

6200

6300

6400

6500

6600

6700

6800

6900

7000

7100

7200

7300

7400

7500

7600

7700

7800

7900

8000

8100

8200

8300

8400

8500

8600

8700

8800

8900

9000

9100

9200

9300

9400

9500

9600

9700

9800

9900

10000

10100

10200

10300

10400

10500

10600

10700

10800

10900

11000

11100

11200

11300

11400

11500

11600

11700

11800

11900

12000

12100

12200

12300

12400

12500

12600

12700

12800

12900

13000

13100

13200

13300

13400

13500

13600

13700

13800

13900

14000

14100

14200

14300

14400

14500

14600

14700

14800

14900

15000

15100

15200

15300

15400

15500

15600

15700

15800

15900

16000

16100

16200

16300

16400

16500

16600

16700

16800

16900

17000

17100

17200

17300

17400

17500

17600

17700

17800

17900

18000

18100

18200

18300

18400

18500

18600

18700

18800

18900

19000

19100

19200

19300

19400

19500

19600

19700

19800

19900

20000

20100

20200

20300

20400

20500

20600

20700

20800

20900

21000

21100

21200

21300

21400

21500

21600

21700

21800

21900

22000

22100

22200

22300

22400

22500

22600

22700

22800

22900

23000

23100

23200

23300

23400

23500

23600

23700

23800

23900

24000

24100

24200

24300

24400

24500

24600

24700

24800

24900

25000

25100

25200

25300

25400

25500

25600

25700

25800

25900

26000

26100

26200

26300

26400

26500

26600

26700

26800

26900

27000

27100

27200

27300

27400

27500

27600

27700

27800

27900

28000

28100

28200

28300

28400

**GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA**
Argitaratzailea:
"Goierritarrak" Kultur
Elkartea.

Dorre-etxea, 1.
(Correos-gainean).

Tfnoa: 889612.

Faxa: 161463.

124 posta kutxa,

Ordizia.

Zuzendaria:

Loinaz Agirre.

Erredakzioa:

Jon Arano, Mikel Albisu.

Publizitatea:

Argider Mujika.

Erredakzio Batzordea:

Dionisio Amundarain, Jon
Arano, Mikel Albisu, Jon Ima-
nol Iturrioz, Patxi Zubizarreta,
Ane Martin, Loinaz Agirre, Ne-
kane Altuna eta Estitxu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista
eta kolaboratzaileak:**

Joxe Begiristain, Aitor Calvillo,
Rufino Iraola, Joseba Telleria,
Mari Joxe Madariaga, J. M. Or-
mazabal, Izaskun Salazar, Ana
Irastorza, Edurne Ayuso, Iñaki
Leturia, Iñaki Amundarain, Jon
Aldanondo, Nagore Goiburu,
Mikel Oiarzabal, Xanti Mendi-
zabal, Bizargorri, Josune
Amondarain eta Xabier Mendi-
guren.

**Fotokonposaketa eta maketa-
zioa: GOIERRITARRA.**

Inprimaketa: ANtza, S.A.
(Industrialdea, 1-2. Lasarte-
Oria)

Tirada: 4.000 ale. 3.700 harpi-
dedun.

ISSN: 1132-0907

Lege Gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du
bere gain hartzen derrigorrez,
aldizkarian adierazitako esa-
nen eta iritzien erantzunkin-
zunik.

▼ Hamabostaldian nabarmen ▼



Javi Fernandez olaberritar bidaialaria

Javi Fernandez, lurre au-
zoko biologo gazteak, hainbat
bidaia egin du azken 3 urteot-
an Argentina, Txile, Ecu-
ador, Venezuela eta Hego
Afrika aldera. Makina bat
animalia eta leku bitxi ikusi
ahal izan ditu bertan.

1992an egin zuen lehen bi-
daia Argentina eta Txilera.
Patagonian dagoen itsas-ele-
fanteen kolonia kontinental
bakarra eta itsas-otsoak ikusi
zituen. Javik dioenez, "Punta
Tombon pinguinoen kolonia
kontinental handiena ikusi
genuen, milioi bat edo egongo
ziren eta hauek ikusteko bai-
men berezi bat lortu beharra
izan genuen". Txilen kondor-
rak, glaziarrak eta izeberg-ak
ikusteko aukera izan zuen.

Iaz, Galapago irletan egon
zen. Uretako iguanak eta dor-
toka erraldoiak ikusi zituen.
Dena den, "zoritarrez nire
diru-txartelak ez zidan balio
irla hauetan eta neukan dirua
8 egunetan gastatu nuen.

Ondorioz, aste betean plata-
noak jan behar izan nituen,
gau eta egun", gogoratzen du
Javik. Handik Ecuador eta
Venezuelara.

Aurtengo udan Afrika al-
dean, Botswana, Zinabue eta
Namibian izan da. Errineroz,
elefante eta jirafak... Zinba-
buen Victoria ur jauziak, eta
Botswanan izugarritzko ezus-
tea: "kanpin-dendan egiten
genuen lo. Bat batean elefante
hotsak entzun genituen. Gu
korrikan hasi, eta metalezko
plater eta egur batekin zarata
ateratzen hasi ginen, alde
egin zuten". Namibian azke-
nik, unikornioaren kondairan-
ren ustezko arrazoia aurkitu
zuten: bi adar luze izanagatik,
perfilez begiratzuz gero adar
bakarra ikusten zaion Oryx
izeneko animalia.

Orain, diapositiba emanal-
diak emanez dabil Kutxa
Fundazioaren bidez.

✍ Nagore Goiburu

Besteek esana

Betidanik hegoaldeko
iheslariak hona etorri dira.
Eustakio Mendizabal?
Ezagutu izan dut, bai. Tx-
kia. Behin eguerdi eta
gauerdiko liturgian par-
tehartzea eskatu zidan.
Osoki gizon maitegarria
zen. Bera beneditarra izan
zen, Lazkaon. Guk egina
dugu Lazkaoko Etxea".

**Aita Iratzeder-ek, "DV-
Zabalik"-en, 94-XI-23.**

"Egan taldearen krisia
aspalditxotik dator. 3 urte
behintzat badira harrema-
nak gaiztotzen hasi zirela
Saldias eta gainontzeko
beste taldekideen artean.
Hasiera batean izkutuko
krisia, gero jendaurrekoa.
Esaterako, aurtengo Do-
nostiaiko Ibaeta auzoko
festetan jendaurrean hase-
rretu ziren. (...) Azpeitiako
kantari historikoak ez du
pasatako denboraz hitzegi-
teko gogo handirik. Hona
bere balantzea: "Nahiago
izan dute nire gonapetik ir-
ten... Oso ondo... Nik etor-
kizun on-on bat opa diet
(Trabuko talde berrikoei),
uste dut eta denontzako to-
kirik badagoela eta".

**Saldias-ek Felix Ibargutxiri,
"DV-Zabalik"-en, 94-XI-23.**

**Eusko Jaurlaritz-
ko Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta**

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA dohain
jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea.....

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Aitari erantzuna

Eskematikoki bada ere, "Aita"k Idiazabaldik bidali digun mezu arrenkuratsuari erantzun bat eman nahi genioke, gutxienez Egia osoaren jabe ote den zalantzatxo bat sor dakion, gorrotoz eta prejuizioz puzturiko bere kasko huts horretan.

Probokatzailak, lotsagabeak, interesatuak, kolaboratzailak, espainolistak, partidistak, errepresoreak, salduak, zikinak... horrelako bitxi bidez "demostratu" du Izalgo intelektual honek ez garelako Eusko, ez Gaztedi eta ezta Indarra ere; bejondeiola metodo zientifikoa berri hori asmatu duen euskal Einstein horri.

Gure Aberria Elkarrekin Autonomia omen da soilik; nork eman zion orduan Herri honi Nazio bakar bat izatearen kontzientzia, Carmonak? Santoñako errendizioa lotsagarria izan omen zen; baina zeintzuk afusilatu zituzten han, Floren eta Rufi? Trabak jarri omen zizkieten EKIN eta ETAKoei; abertzaletasunaren traiektoria guztia betirako simaurtu duen jokabide terrorista eta faxistaren hastapenei trabak?, ez zizkieten nahikoak jarri... Eta transizio garaian kolaboratzaile?, hobe "kolaboratzaile" izatea, sasi iraultza antiabertzale bat aurrera ateratzearren Euskadiren etorkizuna hipotekatzen saiatzen den "Stalintxo" bat izatea baino...

Eta Lemoiz, Argel, Ajuria Enea, Odon... "Egin"eko zaborra panfletarioa; ez du kaskoa gehiegi estutu, ez horratio! Endogamia informatibo guztiz sinplifikatzaile eta doktrinarioan bizi den Herri honetako %10aren adierazgarri zintzoa, gure "Aita": Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduko ordezkaritza fiña (Euskal Nazioak ez direnak, iraultzaile apatridak baizik; Askatzaileak ez direnak, diktadura faxista baten aldekoak baizik; eta Mugimendua ere ez direnak, hor ez bait da eulirik ere mugitzen, eskupe-terroak tiroka hasiko ote diren beldurrez). Gainera, KAS eta ETArekin partetik aspalditik aurrera daramaten jeltzaleon aurkako kanpainaren testuinguruan kokatu behar dugu gutuna, beraien estrategia antiabertzaleari aurre egiten diogulako traidore modura aurkeztu nahi bait gaituzte ENAMekoekin aurrean, ETAK horrela bere "lana" errazago egin ahal izan dezan (ikus, adibide modura, Joseba Goikoetxearen

erahilketa edo Juan Mari Atutxaren aurkako atentatu saialdiak).

Geure burua abertzale, eta soilik abertzale modura definitzeak izorrazten du hori; beretzat bakarrik nahi lukeen etxean bizilagunak izatea. Horregatik, gure azken Ekin Aurreraren esaten ditugunak aipatu ere ez ditugut; titularra erabili du, eta hori ere manipulaturik... Seinalea ez zaizkiola interesatzen abertzaletasun osoaren onerako proposatzen ditugun ideiak: *adimena* zer den ere ez bait daki; *pakea*, berriaz, garbitzen dituztenentzat hilerrian; eta *batasuna*, azkenik, beraien artekoa, eta beste guztion kontra.

Jarra dezala Aitak, bere Semea den gorrotoari jana ematen, agian egunen batean agertuko zaio Izpiritu Santua, uso baten itxuran.

Goierriko Eusko Gaztedi Indarra

Aita ez da enteratzen, edo ez du enteratu nahi?

Goierriko EGiko jendeak nire buzoian sartu duen azken aldizkaria ikusi eta *irakurtzeko* zorte "txarra" izan dut. Hau zorigaitza!

Zu aita, ez zara enteratzen. Hego Euskal Herriko zati batetako politikoak azaltzen direla diozu, eta nafarrik ez dagoela, horixe ez dagoela! Iparraldekorik ez dagoen bezala. Badirudi Iparraldeko politikoak ahazterakoan zure Aberria Hego E.H.ra mugatzen duzula. Hauteskundeak EAEn bakarrik izan direla ea enteratzen zaren!

Aipatzen dituzun historiaurreko klitxe guztiak ez natzaizkizu puntuz puntu errebatitzen hasiko. Nire erantzuna nahi baduzu, horretarako hobe zenuke gordeta daukazu Ekin Aurrera aldizkari hori behingoz sakonki *irakurtzea*. Abertzalean artean ditugun konponezin guztien iturburua aurkituko duzun itxaropena dut. Bestalde, ez dut uste pertsona bat bestea baino abertzaleagoa denik jendearekin garondan tiro bat emateagatik edo autobus bat erretzeagatik. Tipo hori kalamidade bat da. "Denok edan behar dugu zer bait, gutxi batzuek dena edan ez dezaten".

Hrvatska Vojnik Oproznije (Beasain)

Alkartasuna Lizeoa: erne, ardi larraz jantzitako Buesakide otsoekin!

Abenduaren 3an larunbata, hil ala biziko Ohizko Batzar Nagusiari begira, zenbait gogoeta, batez ere koldarkeriaz edo axolagabekeriak jokatu ez dezagun.

Ikastolak sortu ziren garaira itzuliz, zergatik sortu ziren Ikastolak duela 28 bat urte? Publiko eta pribatu aukerak orduan ere bagenituen. Baina behar-beharrezkoa ikusi zuen euskaldungoak, euskal nortasuna sendotzeko Ikastola sortzea. Horretarako hainbat lan, ordu eta diru sartuaz, zozketa, jaialdi, taberna, tonbola, Kilmetroak, e.a. Esperientzi txalogarri hura bizita, publiko/pribatu aukera horretara itzuli behar al dugu, Ikastola deuseztatzeko eta funtzionari egiteagatik, Ikastolaren etsai batzuk daukaten gogo egoistarengatik bakarrik?

28 urtez Ikastola bezala funtzionatzen egon ondoren, Buesakideek suntsitu egin nahi dute, gure Ikastola Kooperatiba lapurtu. Buesaren hitzak hortxe ditugu lekuko, historiarentzat: "Ya no existen Ikastolas, sino que solo hay publicas y privadas". Horretarako noski, batez ere Eskola Publikoaren aldeko irakaslegoa, lagun "txintxoak" eta leialak ditu Buesak gure Ikastolan. Berauek oso ondo ordainduak, lanpostua oso "ziurtatuta" Buesaren aldetik... egun mordo bat greba egin eta soldata oso-oso ondo eta zintzo ordaindu die Buesakideek...

Alkartasuna Lizeoko gurasoak, 2.500-3.000 pezetako ikasle kuota ordainduz geure Ikastola defenditzeagatik, ez al genuke berriro hainbesteko "esfortzua" egin beharko?

Alkartasuna Lizeoko bazkide historikoek...ez al diozue zuen bilobei..., hasierako filosofiadun eta benetako Ikastola bermatzea edo garantizatzea nahi?

Ikastolako Kooperatiban sartzeko osarik eman gabe zaudeten *publiko aldeko gurasoei*, hau esango nizuke: *kontzientziaz* ez ote zinatekete abstenitu edo zurian eman beharko Batzarreko bozketan? Bestela legez kanpo ari zaretela ez ote dago esaterik?

Begiak eta adimena ondo erabili eta datorren larunbatean denok benetako eta betiko Ikastolaren alde jokatzeko presta gaitzen euskal kontzientziaz. Botoa eman Ikastola edo "pribatua" defendatzen dutenei, gaur arte bezala jarrai dezaten.

Tomas Agirre (Beasain)

Intereseko Telefonoak

ORDIZIA

Gurutze Gorria	272222
D.Y.A.	464622
Anbulategia (Ordizia) ..	881165
Anbulategia (Beasain) ..	880759
Eskualdeko Ospitalea ...	723813
Ertzantza	887350
Udaltzaingoa	884005
Suhiltzaileak	881362
Udaletxea	885850
Ongizate Saila	888250
Obralan Bulegoa	882465
Kontuhartzailletza	887600
Kultur Etxea	881280
Herri Antzokia	880744
Majori Kirolegia	889333
RENFE	283039
Oiangu Baserria	889106



Juanita Iriartek
emana
Ekaitz Taberna
Ormaiztegi

ETXEKO XOLOMOA

Osagaiak:
(4 lagunentzat)

Kilo bat xolomo freskoa, baratzuri buru bat, perrejil pixka bat, 3 arraultza, ogi arrailatu piska bat eta gatza.


Xolomoa fin ebaki. Baratzuri eta perrexila txiki- txiki egin eta xolomoari bi

aldeetatik erantsi. Ondoren arraultza eta ogi arraila- tuetan pasatzen da eta freji- tu eta jatea besterik ez da geratzen.

Honek duen alde ona, ze- ra da: frejitzeko prestatuta, hotzgailuan 4-5 egunetan gorde litekeela, nahi de- nean frejitzeko.



Bota bertsoa



Ikerne Urrestarazu
Gaia: Abenduko
zubia
Doinua: Nafarroako
mendi gainetan

Zubi hau dela eta ez dela egoera da iluna besteak beste ospatzen bait da Konstituzio eguna. Ama Birjinak ere badauka zubi hortan oihartzuna bi egun alu direla eta bost egunez poztasuna. (bis)

Batzuek aste bete ederra pasako dute kontura hegazkineko txartel pare bat eta mailetak eskura aste beteko lasaitasunak egingo digu onura. Aprobetxatu beharko dugu bakoitzak ahal dun modura. (bis)


ZELAETA NEKAZAL TRESNAK

Carlos Oiarbide Albizu



AGRIA

SABO



STIHL®

Jonsered

Banatzaile ofiziala

Zelaeta baserria Zumarraga bidean, ORMAIZTEGI ☎161515 Faxa: 882778

UNTXUNDEI Garajea



OSINALDE Karroategia

☎ 88 28 21 - 16 07 06
ORMAIZTEGI

Debaldeko iragarkiak

Lana

□Mekanografia lanak egiten dira ordenadorez Ordizian. 882843 telefonoa, Eli.

□Neska euskaldun bat eskaintzen da etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. Esperientzia. Telefonoa: 180413 (Ana).

□Unibertsitariak OHOk klaseak ematen ditu. Umeekin esperientzia. Ekonomikoa. 884795. (Ordizia)

Salerosketak

□Opel Corsa saltzen da. Egoera onean eta iratiarekin. Informazio gehiagorako deitu 88 19 52 telefonora.

□Kerosenozko berogailua salgai prezio onean. 88 86 28.

□Goi-mendiko zakua salgai, lumaduna, berri-berria, salneurria tratuan, hitzegiteko. Dei 889612ra, Mikel.

Etxebizitzak

□Pisua salgai Ordiziako Altamira auzoan: sukaldea, sala, 4 gela, e.a. Interesatuok dei 881827ra edota 881018ra.

□Pisua alokatzen da Beasaingo Igartza-Oleta kalean. Berogailuarekin. Egutera. Sukaldea jantzita. 88 96 40.

□Pisu amueblatua alokatzen da Ordiziako Lazkaomendi kalean. 16 16 60.

Egutegiak

ANTZERKIA

✓ Beasain:

Abenduak 2, Bulgaria-ko Puppet Pleven txotxongilo taldeak 'Cuento de Elfos' antzezlanaren aurkeztuko du La Sallen, 15.00etan eta 19.30etan. Sarrera 300 pezeta.

✓ Ordizia:

Abenduak 1, txotxongiloak Herri Antzokian. 11.00etan Murtziako Periferia taldearen 'Laberinto' lana. 19.00etan, Bulgariako Puppet Varna taldearen, 'Juegos de luces y sombras' lana.

BERTSOAK

✓ Ataun

Abenduak 2, Urbitarte sagardotegian mahai-ingurua, 8etan. Gaia: "Bertsolaritza sagardotegitik telebistara". Hizlariak: Mikel Mendizabal, Joxepa Madariaga eta EHBE-ko kide bat. Ondoren bertso-afaria, Mendizabal eta Begiristainekin.

ZINEA

✓ Beasain:

Abenduak 3, 'Azken Mohikanoa' Murumendi ikastetxean, 16.30etan.

Abenduak 4, 'Wanda izeneko arraina' La Sallen, 16.30etan.

Abenduak 11, 'Asterix menhirkada' La Sallen, 16.30etan.



✓ Ordizia:

Ostirala 2, "Volar por los aires", 10,15.

Larunbata 3, "Volar por los aires", 7,30 - 10,15.

Igandea 4, "Los pica-piedras", 4,45. "Volar por los aires", 7,30 - 10,15.

BESTELAKOAK

✓ Beasain:

Abenduak 3, Kubaren aldeko jaia Ezkierdi Pilotalekuan, txistulari, dantzari, haurrentzako ekin-tzak eta 'Atila y los unos'-musika taldearekin.

Abenduaren 6a arte, Anselmoren denda zaharrean (Kale Nagusia 25ean), liburu, diska, bideo eta joku azoka, Goerriko Goiztiri AEK-k antolatutako. Ordutegiak: egunero 17.00etatik 20.00etara, eta astearte eta larunbatetan, baita 10etatik 13.00etara ere.

✓ Ataun


Abenduak 3, kontra-bandoari buruzko hitzaldia Aian 8etan.

✓ Ordizia:

Abenduak 3, aintzina-ko tresnen bildumaren azoka Beti Alai Pilotalekuan, 10.00etatik 20.00etara.

MUNDUATE

Erlojutegia



TISSOT

Swiss Quality Time

BANATZAILE OFIZIALA

100 urte baino gehiago Goierriren zerbitzuan

Nagusia, 1
Tfona: 88 12 72

ORDIZIA

RENAULT



Ordezkaritza

GOIERRI GARAJEA, S. A.

☎ 88 10 73 - 88 20 05 Ordizia

Probetza orain bateri, olio aldaketa, anti-izozketa eta argietan gure salneurriak hoberenak.

Lan hauek egiteagatik parte har ezazu



baten zozketan.

Zozketa notarioaren aurrean egingo da 1995eko apirilaren 4an. Eskaintza 1994ko abenduaren 31rarte baliagarria.



- Iturgintza
- Berogintza

Mendi-Ondo etxea
Tfona: 88 40 57
ZALDIBIA

Esteban Lasa, 7
Tfona: 88 80 29
BEASAIN

✓ Itsasondo

Abenduak 3, iluntzeko Setatik aurrera, Talo Festa herriko frontoian. Talo, txorizo, gazta eta ardoa dohainik. Giroa alaitzeko dantzariak ere izango dira, Edu Murumendiaraz txapelduna tarteko.

✓ Lazkao:

Abenduak 15, 'Cho Oyu' diapositiba emanaldia Ramon Berasategi eta Koke Lasaren eskutik, Maizpideko zineman.

IKASTAROAK

✓ Beasain:

Abenduaren 12tik 21era, gozointzari buruzko ikastaroa. Ordutegia 16.30etatik 18.30etara. Matrikula 500 pezeta. Ikasle kopurua mugatua da.

ERAKUSKETAK

✓ Beasain:

Abenduaren 4 arte, Agustin Sagastiren Argazkien Erakusketa Kultur Etxeko Erakusketa Aretoan.

Abenduaren 9 arte, Lolita Sarrasetaren erakusketa Aterpe Tabernan.

Abenduaren 10etik 30era, Aterpe Tabernako III. Pintura Lehiaketan

aukeratutako lanen erakusketa egongo da, Aterpe Tabernan.

✓ Ordizia:

Abenduaren 9tik 21era, Francisco Javier Sotoren pintura erakusketak.

Abenduak 15, Jose Mari Karrerekin ipuinaren ordua, Barrena Kultur Etxean, 17.00etan.

MENDI IRTEERAK

Beasaingo mendizaleak:

Abenduak 4, Txindokira (1.346) mendi-irteera.

Abenduak 11, Ballora.

Idiazabalgo mendizaleak:

Abenduak 4, Zegama-Aloña (inguruko herrietako gazteen ibilaldia).

Ordiziako mendizaleak:

Abenduak 4, Murumendira mendi irteera. Finalista eguna.

GOARDIAKO BOTIKAK:

Abenduak 1: Atorrasagasti; **2:** Azpilikueta; **3-4:** Laurnaga; **5:** Jauregi; **6:** Laurnaga; **7:** Cuesta; **8:** Arriola; **9:** Urbizu; **10-11:** Cuesta; **12:** Atorrasagasti; **13:** Azpilikueta; **14:** Jauregi; **15:** Laurnaga.



Pazkuatako lorea eta kardoak nobedade

Gabonak gerturatzen ari diren neurrian, Gabon usaina nabari da jada Ordiziako azokan. Pazkuatako lorea 800-850ean saldu zen; bixigua 4.000 igo zen; arku-meak gero eta gehiago dira, 154 buru azaldu ziren asteazkenean, 500 pezetan saldu ziren; eta lehenengo kardoak 300-350ean salduak.

Ehiza oraindik ere bada. 80 oilagor azaldu ziren, 1.900ean salduak; 15 uso (800-900ean) eta 50 birigarro (100ean). Perretxikuetan, onddoak izan ziren nagusi. 50 kilo inguratu zituzten, 3.000 pezetan saldu zen kiloak. Gamuza 600-800ean eta gibelurdinak 2.000an.

Bertako fruituak: mizpe-roak desagertu dira, kiwia ugaritzen ari da (200-250 pezetan), errezil sagarra 100-350ean eta kakia 200ean. Barazkietan, piper gorri txorixeroa oraindik ere badago zertxobait, 200ean saldu zen. Piper


berdeak 250ean, aza 50-100ean, Brokoli (azalora berdea) 200ean, Bruselako azak 250-300 pezetan, azalora 125-175ean eta bertako patata 50ean ale txikia eta 75ean ale haundixeagoa.

Kanpoko fruituetan, granadak behera egin du, 175-200; gaztainak 225 eta 275 pezeta artean; kiwia 200-250 pezetan; limoia 175-250ean; sagarrak 100-175 pezetan; mandarinak 125-250ean; laranjak 75-130ean; bananak 200-300 pezetan; pinak 200ean eta mahatsa 250-275ean.

Landaretan, udaberriko tipula hibridoa izan zen nobedade. 300 pezetan saldu ziren.

Arrain gehienak, bixigua ezik, jaitsi edo mantendu egin dira. Legatza 1.850ean, antxoak 820an, sardina 520an, makailua 1.250ean, oilarra 1.180an, mediana 1.620an, peskadila 1-420an, eta zapoak, 980an txikia eta 1-390an handia.

Ana Irastorza



Erretegiko txuleta onak jan nahi badituzu TXERTAKADI sagardotegian duzu zure aukera.

● Sagardo berria txotxetik abenduak 7tik aurrera.

● Egunero irekita.



❑ **V. BEASAIN IDAZ-LAN SARIKETA** antolatatu du Beasaingo Udaleko Euskara Batzordeak, Beasaingo ume, gaztetxo eta gazteentzat, euskaraz idazteko trebetasuna sustatzeko asmotan. 3 maila bereiziko dira.

* A maila: 1977-78-79-80 urteetan jaiotakoak. 4 orrialde gutxienez eta 6 gehienez izango da lanen luzera. Lehen saria 40.000 pztakoa izango da.

* B maila: 1981-82-83 urteetan jaiotakoak. Lanen luzera, 2 orrialde gutxienez eta 4 gehienez. Lehen saria 28.500 pztakoa.

* D maila: 1984-85-86ean jaiotakoak. Orri bat gutxienez eta 2 gehienez, eta lehen saria 17.000 pztakoa izango da. Idazlan guztiak abenduaren 9rako aurkeztu behar dira Udaletxeko Euskara Zerbitzuan.

❑ **HITZAROREN LOGOTIPO BILA.** "Hitzaro" euskara elkartearen logotipoa aukeratzeko deialdia luzatu dute. Honako baldintzak bete behar dira: Ordizian jaiotako edo bertan bizi diren guztiek parte har dezakete; lanak Din A4 neurriko kartulinan aurkeztu beharko dira; egileak kolore bat baino gehiago erabili beharko du eta egile bakoitzak gehienez 3 logotipo aurkeztu ahal izango ditu; bertan "Hitzaro" hitza agertzea ezinbestekoa izango da, "Euskara Elkartea" eta "Ordizia" aukeran egongo direla; egilearen datuak sobre batean entregatuko dira, batean lanaren edo lanen izenburuak adieraziz, eta beste batean lana edo lanak sartuz. Lan guztiak Ordiziako 4 posta kutxara bidali edo bere egoitzan (Altamirako eskola zaharrean); edota Barrenako bulegoan utzi beharko dira abenduaren 15a baino lehen. Irabazlearentzat 15.000 pztakoa saria izango da.

❑ **FANDANGO (ORRIPEKO) ETA ARIN-ARIN TXISTU MUSIKA LEHIAKETA** antolatatu du Segurako Udalak 10. aldiz. Konposizioan, ohizko txistu familiar tresnak erabili beharko dira, hau da: 2 txistu, Silbotea, Danbolina eta danborra "adlibitum". Konposatzaile bakoitzak, Orripekoak, Ariñ-Ariñak edo bietatik aurkez ditzake. Dantzarako egokitasuna, doinuen aberastasuna eta edertasuna, armonizapena, doinuaren esaldiak 8 edo 16 konpasetakoak izatea hartuko dira kontuan. Ez da neurri herrikoirik onartuko. Lanak martxoaren 1erako bidali beharko dira Segurako Udaletxera. Irabazle aterako diren lanak ekainean Seguran izango den Euskadiko Dantza Txapelketan joko dira.

❑ **GOIERRIKO ERRETRATU ZAHARRAREN ESKE GOIERRITARRA**

Goierriko edozein herritako erretratu zaharrak behar ditu GOIERRITARRAK, argitara emateko. Argazkia non eta noiz aterata dagoen, bertan agertzen direnak nortzuk diren... xehetasun guztiekin, ahal bada. Argazkiak hutsik egin gabe itzuliko dira, eta horretarako bidaltzailearen izen-abizenak, helbidea eta telefonoa argi eta garbi azaltzea eskertuko genuke. Mila esker! GOIERRITARRAREN zuzenbidea: 124 p.k. Ordizia. Dorre-Etxean gaude, "Correos" eta Nekazal Ganbararen gainean. Tfnoa: 889612.



MUJICA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA

GOIERRIKO KANPO KOOPERATIBA

Ganaduzaleek ganaduzaleentzat sortutako kooperatiba
MOTA GUZTIETAKO: Pentsuak, Ongarriak, Lantresnak

Euskalerrria Kalea
Industrialdea

☎ 88 04 15 ORDIZIA
☎ 16 07 07 OLABERRIA

Jose Mari Salinas

Auto elektrizitatea

Erreminta elektriko erabilgarriak
Konponketak

Enatarriaga etxea, Iurre auzoa
Tfnoa: 88 21 49 BEASAIN

Linterneritza
Gasa

Berogailuak

BAKARRIK

☎ 88 07 65
908 671542

Igartza Oleta 10
BEASAIN

San Nikolas egunez, haurrak atez-ate

Une hauetan ia ahazturik dago zaldibitarren artean, aspalditik bi-zi-bizirik iraun duen haurren ohitura bat. San Nikolas de Bari abenduaren 6an ospatzen da kristau egutegian. Eta egun honetan, haurrak eskolatik atera bezain laister, hor joan ohi ziran atez-ate eta base-rriz-baserri, Santuaren izenean kantu eta errepika eginaz, eskean bildutakoarekin ilunabarrean afa-ri-merienda ederra egiteko asmoz.

Eta zer zen kantatzen zutena? Behar bada Santuaren oroimeneko kuriosidade asko haurren zaindari bezala goratuaz. Neuk, ondoren dihoan honako kanta hau jasoa dut:

San Nikolas coronado,/ Arzobispo muy honrado!/ Amen. Amen. Ale-luia!/ Los pastores soberanos/ San Nikolas, kirikolas!/ Dame dinero,/ un par de reales/ para el Obispo./ Angelitos somos/ del cielo bajamos./ Ahi estan. Aqui estan./ Atea, tan, tan, tan...

Orain 50 urte inguruko sasoiko gizaseme eta emakumeek, urterik urte hau kantatuz taldean irteten omen ziren, bai ederki pasatu ere noski, beren esanean "San Nikolasen kontura!" Behar bada gaur egungo gazte eta haurrek ez dute jakingo zein zen San Nikolas eta zer ikusia ote duen haurrekin.

✍ *Emeterio Sorazu*

Euskarazko liburuak irakurtzen al dituzu?



Xanti Lizarraga
23 urte, zaldibitarra
mekanikoa

Batere ez. Ez daukat irakurtzeko ohiturarik, ez euskaraz, ez erdaraz. Irakurtzekotan, kirolen inguruko informazioak irakurtzen ditut, baina liburu oso bat ez.



Anttoni Irastorza
31 urte, zaldibitarra
kale garbitzailea

Asko ez. Saiatzen naiz euskaraz irakurtzen bai-na gehiena erdaraz irakurtzen dut. Asko kostatzen zait euskaraz irakurtzea. Euskarazko aldizkariak irakurtzen ditut, baina liburuek lan asko ematen didate.



Joakin Zubeldia
36 urte, zaldibitarra
igeltseroa

Bai, euskarazko zen-bait liburu irakurtzen ditut, baina erdaraz gehiago. Erreztasun gehiago daukat erdaraz irakurtzeko. Dena den, bietan dauden gauzak, euskaraz irakurtzen ditut.

Bitxikeriak

San Nikolasen bizitza

Turkiako Patara herrian jaioa 280an. Famili oneko haurra zelarik, txikia zela galdu zituen gurasoak. Bai eta haiengandik eskuratutako ondasunekin azkar asko "partizioak" egin ere behartsuen artean, diruak lo egiten ez baitzion uzten. Basamortuan otoitzean eta behartasunean bizi zela, herriak Mira hiriko Gotzai izendatu zuen; bere etxea behartsuena bihurtu zen eta eskaleen babesle bezala gogoratzen da. Nizeako Batzar nagusian parte hartu zuen 325ean. San Nikolasen ezagumena eta estimazioa iristen zen guztietan mirari-egiletzat zeukatelako da. Behin baino gehiagotan mutikoak berpiztu zituen. San Nikolas "Santa Klaus" bezala gogoratzen da Turkian, Errusian eta Europako herri askotan.


HORTZ KLINIKA

RUIZ VILLANDIEGO eta PARDO MINDAN Doktoreak



- * HORTZEN EDERKUNTZA
- * HORTZ EZARKETAK
- * MATRAIL-HEZURREKO ARTIKULAZIOAREN TRATAMENDUAK
- * PROTESIS FUNTZIONALAK

Andra Mari, 7 - 1. A BEASAIN Tfnoa.: 88 07 83



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20

Tfnoa: 88 87 02

BEASAIN

Ba al dakizu...?



OEKONOMIA-INDUS-

TRIA berriak izan dira nabarmenak hilabete honetan. 30 bat enpresetako ordezkari bildu zituen Goierriko Garapen Agentzia den Goiekik enpresaren nazioarteratzea zutela gaitzat. Ekialdera edota Asiara esportatzea litzateke eskualdeko enpresen erronka berria. Bestalde, sortu berria den Goieki Goierriko enpresak ezagutzen eta hauei laguntzen saiatzen ari da, zenbait ikastaroen bidez. Bertako enpresen %75ak 10 langile baino gutxiago ditu, %10ak 10-20 langile bitartean eta %8ak 20-40 bat. Gehienetan enpresaria bera langilea da eta enpresaren gestio orokorra kili-koloan dago. Goiekiko teknikoa den Nikolas Errasti laguntzeko dago, baina uste du mentalidade aldaketa bat behar dela enpresarien artean.

IRIZARREK TXINAN

MILA AUTOBUS egingo ditu urtean, Asturiasko Alsa konpainiarekin eta Txinako Estatuaren enpresa batekin elkartzuz. 'Tianjin Irizar Coach Ltd' enpresa sortuko dute Txinan. Enpresa honek urtean mila autobusen karreroeriak egingo ditu Tianjin hirian kokatuko den lantegian. Hiru sozioek 1.500 milioi pezetako inbertsioa egingo dute. Irizar Kooperatibak 350 langile dauzka eta 400 autobus ekoiztuko ditu aurtan Ormaiztegin. 7.200 milioi pezetaren fakturazioa espero du, iaz baino % 67 gehiago.

INDAR ENPRESA BEA-

SAINDARREKO zuzendaritzaren inguruko iturriek diotenez posible izan liteke bere instalakuntzak aldatzea herrian bertan eraikiko lukeen planta

berria. Horretan 600 milioi inbertituko lituzke eta firma horren biabilitate egitasmoaren barruan joango litzateke. Joandako maiatzaz geroztik ordainketa-eten egoeran dagoen horrek bere aktibitateak banandu egingo lituzke hirutan: makina elektrikoak, bonbak eta asistentzia teknikoa. 3.000 milioiko pasiboa eta administrazio desberdinekin 2.000 milioiko zorra duen enpresak, 60 langile gutxiago eukiko lituzke, 200 beraz.

LEHEN ASEGURU POLIZAK EUSKARAZ.

Lloyd Adriatico aseguru etxea polizak euskaraz soilik eskaintzen hasi da, lehenbizikoz. Xabier Mendiguren Bereziartua ezkiotarra izan da euskararen normalizaziorako eta onerako izango diren aseguru hauen itzultzailea. Oraingoz, 4 poliza mota egin dituzte: etxebizitza, istripuak, jubilazioa eta bizitza alorretakoak. Konpainia horretako Gipuzkoako buru den Ramon Gerriko segurarra eta beste zenbait ordezkari (Jone Albisu Seguran; Koldo Etxeberría itsasondarra Beasainen; Xabier Jaka Legazpin; Juan Arrondo Ataunen eta Juan Ramon Gerriko Idiazabalen) dabilta Goierriin egitasmo hau zabaldu nahian. Arrakastarik badu aurrera egingo du.

GREBA JAPONIAR

ERARA. Ormaiztegiko Inoxgan enpresako Leocadio Gonzalez langileak japoniar erako greba egitea erabaki du, Gizarte Asegurantzak Familia Baberako emandako 54.000 pezetak itzultzea eskatzen dizkiola eta. Leoca-



OTEGI-UNANUE

ERAIKUNTZA ORO EGITEKO PREST
Etxebizitzak berriak salgai Ordi-
ziako Elkano kalean
Bekokale 17-1.
ITSASONDO ☎ 16 02 22



SEGUROS BANCO VITALICIO NACIONAL HISPANICA
VITALICIO PENSIONES

ASEGURUAK

Esteban Lasa,3 ☎160486 BEASAIN

dio Gonzalezek goizeko 6etatik arratsaldeko 6etara bitartean lan egiteko asmoa du. "Era honetan egunero 4 ordu extra sartzen ditut; eta horrela jarraituko dut nagusiak diru hori irabazi dudala esaten didan arte. Ez dakit nola aterako zaidan".

ZENBAIT BERRI TELEGRAFIKOKI:

Zaldibiako Udalak zenbait ekimen daramatza aurrera enplegua sustatzeko: gazte batzuk hargin ikastaro eta lanetan ari dira; Repsol Butanok berarekiko Goierriko kontsumitzaileen kontratuak eguneratzeko deia egin du; Beasainen, berriz, bertako Udalak HBri ia milioia zor diola salatu du koalizio horrek "Egin"en.

ZEGAMA. Hain famatua izan den Zegamako Papertegia botatzen hasi dira jada. Bere espezialitateen artean, bizar papera, pergami-noak, ehuna, eta paperak izaten zuen txuritasuna izan omen ziren Papertegiaren arrakastaren oinarri. Zegamarentzat bizi-iturri nagusia izan da mende erdi batez.

ORDIZIA. 'Euskara merkatal mundura' egitasmoaren 2. fasea jarri da abian Udaleko Euskara Batzordeak. Lehen fasean establezimendu bakoitzeko hizkuntz egoera

zein zen ezagutzeko datuak bildu ondoren, orain, establezimendu bakoitzaren tipologiari dagozkion eskaintza zehatzak aurkeztuko dira. Euskaraz dakiten merkataria alfabetatzen hasiteko ikastaroak eta dagoeneko alfabetatzen hasita daudenei, merkataritzako euskara lantzeko ikastaroak eskainiko zaizkie. Helburua komertzioetan gehien erabiltzen diren hitz, esaldi eta idazkiak euskaraz idazten erakustea da.

EUSKAL TONBOLA


abian jarri du berriro ere 'Euskaldunon Egunkaria'k. Tabernetan hogeituroren truke eskura daitezke boletoak. Sariak berriz, ugariak dira: afariak, txirrinduak, egutegiak, musika kateak, irriak, dirua... Urtarrilaren 2an berriz, kotxea zozketatuko da, saririk egokitu ez zaien boletoen artean. Boletoak gorde beraz, eta zorte on!

GREGORIO ARAMENDI, Zegamako eltzegile eta zeramista ospetsua hil berri da. Debako Eskolakoei eta makina bat lagunei berak erakutsi zien galtzear zegoen ofizioa. Goian bego.

BITORIANO TELLERIA merezita omendu zuten joandako igandean, Idiazabalgo organista gisa 50 urte betetzen zituela eta. Parrokiko



Abesbatzak 67an Bitorianok hiru abotsetara armonizatu eta moldatutako Euskal Meza kantatu zuen. Ondoren Xose Mari Etxaluze bertsolariak, herriko txistulari taldeak eta abesbatzak saio bana eskeini zuten. 1944ko urteaz geroztik da Bitoriano elizako organista titularra. 9 urte zituela sartu zen Telleriatarra musika ikasten Jose Galo Zudairerekin; pianoaz gain, txistua eta biolina ere jo izan du. Armoniarekin hasi zen, 1735ean jarritako organoa 1948a arte ez baitzen berritu (Inazio Jauregialtzo Mujika herritarri esker; Mateo Mujika gotzai idiazabaldarrak inauguratu zuen 50ean). Hala ere, musikatik ezin bizi eta beste zenbait lan ere egin behar izan ditu. Xehetasun gehiago GOIERRITARAREN 37. zenbakian aurkituko dituzu irakurle.



WELloyd Adriatico

Askatasun Hiribidea, 7

UR edificizioa

Tfnoa.: 43 00 00

Faxa: 42 79 18

DONOSTIA


“CAF” zaharra eta berria

CA.F. (Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles) Gipuzkoan Ekipamendu-Ondasunetarako lehenetariko enpresa izan zen. Metodo berrien konpetentzia eta burdin produkzioarako teknika berriak zirela eta, garai hartako burdindegi edo burdinoleta (Yurrekoa Olaberrian eta Yartzakoa (Igartza) Beasainen) jabeak elkartu ziren. Hauek 1816an gaur egungo kokalekuan, Gipuzkoako lehen labe luzea “Fabrica de Hierro San Martin” izenarekin bideratu zuten.

Latorri edo ojalta fabrikazioan, Espainian lehen lantegia izan zen. Baina laster, 1892an Sestaora aldatu zuten eta Beasainen egurrikatzeeko labegaraia utzi zuten, hots, “La Maquinista Guipuzcoana” deituriko lantegia. Ondoren, “Goitia y Compañía” elkarteak burdingintza bultzatu bazuen ere, laster amore eman beharrean aurkitu zen, zeren burnia merke lortzeko lehengaia kanpotikoa (haseran Mutiloa eta Zeraingoa) eta erregaia ere harrikatzaz ordezkaturia izan baitzen. Ondorioz, Beasaingo lantegia era askotako makina eta transmisioak egiten saiatu zen.

Mende honen hasieran, “La Maquinista Guipuzcoana” eta Bilboko “Sociedad Española de Construcciones Metalicas” elkartu ziren, bagoi eta trenbidetarako beste zenbait materiale fabrikatzeko. 1905eko martxoaren 13an lehen bagoia irteten da. Handik gutxira, espezializazio gehiagoren egarritz enpresa independentea bihurtu zen, “Fabrica de vagones de Beasain”.

Beraz, antzinako burdinola haiek, burdingintza modernoaren aintzindari gertatu



ziren haiek, jatorritik aldentzen joan ziren, azkenik trenbideetarako materiale egile bihurtu arte.

Nahiz eta 1914ko gerratean zenbait arazo eta egoera larritan ibili, esan daiteke 1917an “Compañía Auxiliar de Ferrocarriles” (C.A.F.) bezala ezagutuko dela, eta geroztik goierritarrok berriz, “Fabrika Haundia” bezala. Ondorengo urteetan urrats berriak ematen jarraituko du. Esateko, 1924 ezker C.A.F.-en lokomotore elektrikoak, bagoiak, garabiak (gruak) e.a. egiten dira. 1930ean, dagoneko 30.000 bagoi eginda eta Espainian osoko erruedak egiteko lehen laminazio eta sutegia inaguratu da.

C.A.F.-ek bere enpresal ibilbidean uka ezinezko krisialdi sakonak izan ditu. Hoietariko bat eta agian lehenetarikoa 1931. eta 1936.aren bitartean sortu zitzaion, non Errepublikako Gobernuak orduko langileen kopurua 1.800dik 600era jaistera baimendu baitzuen. C.A.F.-en historia labur honetan hurrengo atal berria 1936ko gerratearen ondoren hasten da. Aipatzeko, 1936an Irungo Tailerrak erosten ditu. 1941ean Madrilko Tailerrak ere bai eta guztira 1945ean 1931ean zituen 1.800 langileetara berriro iritsiko da.

1950-1960 hamarkadan, alde batetik Espainiako Gobernuaren Modernizazio Plan Orokorrak berpiztuko duen RENFE-ren laneskeintza berriei esker, C.A.F.-ek haunditzen jarraituko du. 1945ean trenbideetarako materiale egile zen Zaragozako “Material Movil y Construcciones”, lehen “Talleres Carde y Escoriaza” zenaren kargu egiten da. Hemendik aurrera, REN-

FE-ren egokitze plana eta kanpo-merkatuen kointura ekonomikoari begira, C.A.F.-ek bere instalazioen berrikuntzei ekingo die. Guztiau honela izanik, 1960tik aurrera beste eguneratze prozesuan murgiltzen da.

✦ Automozioko ihardueretan (Jeep, enbiak, kamioientzat largeroak).

✦ Mugaz kanpoko merkatuetan sarbidea izan zezan, sektorearen exportazio gestioa garatuko zukeen ahalbide eta zerbitzuak sortu zituen 1962an.

✦ Kalkulo Ikerkuntza Zentrua ere 1968an osatu zen. Europako beste zenbait herrialdeen antzera teknologikoki goi-mailan egon zedin, batipat, ibilgailu modernoek eskatzen duten trenbide-dinamika garatuaz. Abiadura handiko bogie adibidez.

Eta azkenik egungo izenaren jatorriaren sorrera adierazten duen elkarketa aipatuko dugu: Zaragozako “M.M.C.” eta “Compañía Auxiliar de Ferrocarriles”-ena. Ondorioz, “Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles” (C.A.F.) izanaz.

✍ Mikel Oiartzabal

Erakusketa
Sukaldeko tresnak

Alpe

Mariaratz, 4
Tfona: 88 86 84

BEASAIN

iÑABE ERAIKUNTZAK S. A.

Mota guztietako eraikuntzak

Sanperio, 2

☎ 883829

ORDIZIA

CAF, ekologikoa

Bizitzako denbora gehiena daramat lanean CAF-en, eta beti galdetu izan diot nere buruari: nola izan liteke trenak egin eta dirua irabazteko asmoa duen enpresa batek, bere lurretan kokaturik dagoen "Goierriko arboladirik onena" edo "lorategi botaniko hoberena" bezala katalogatu litekeenari espazioa eta dirua ere eskaini ahal izatea? Arboladi bat zer den galdetuko bagenio geure buruari, bestelako zenbait paraje natural irudikatuko genuke, ez genuke inola ere Fabrika Haundian pentsatuko; bada, hala ere, bere muga-barrutietan kalitatez eta kantitatez ezagutu beharreko bilduma ederra daukagu.

Orain dela urte batzuk, bitxikeria polit bat gertatu zen: Beasaingo udalagintariren batek, hondamendi egoeran zeuden Porteria auzoko etxeen botaketa galerazi zuen, behin-behineko behintzat, haien atzekaldean fabrika bat ikusten zela argudiatuz. Eta bien bitartean, zenbait zuhaitzen saila bikaina dago (sekuoiak, Indigastainondoak, e.a.), zeinak etxeak suntsitutako terrenoetan egin den parke eta inguruena goraltzen duen.



Aurtengo "Beasain Jaietan" urtekariko gai honi buruzko artikulu polit eta ondo dokumentatua irakurri ondoren, osagarri bezala, hainbat zuhaitz espezieen zerrenda (batzuk bakarrak eta guzti dira Euskadin) handiagoa dela esatea beharrezkoa ikusten dut. 92eko udazkeneko ondareari erreparatu, 45 arbol-espezie eta 40 zuhaixka mota ezberdin daude CAFen. 625 arbolondo guztira. Geroztik landare gehiago aldatu edo landatu dira.

Hona hemen bertako arbol eta lore espezie gehien izenak, Xabier Lizaur-ek egindako zerrendaren arabera (bakoitzaren ale ugari daude zenbait kasutan): Japongo madarikatuba, ezpela, magnolia, izai gorria, indi-gastainondoa, hortentsia, aokiba zuhaix-

ka, palmondo goren, Washingtonia palmera, haritza eta ipar haritza, eder elautza, aihena edo huntza bulegoen paretetan, mahatsondo parra, hagina, larros sortak, astigarra (japoniarra ere bai), Jupiter-zuhaixkak, pipakirten edo gogortsua, gereziondo japoniar txikia, altzifre lawsoniarra, hibiskoa edo Sierriako arrosa, asi-akaziak, haltza, errododrendoa, platanok, makalak, Himalaia-

ko eta Atlasko ertzak, Judeako arbola, sekuoia erraldoia, menbriladi japoniarra, lilak, tilo edo ezkia, weigelia zuhaixkak, urkia, hurreondo purpura eta urritzak, intsusa, ereinotza, lizarra, basabikondoa, pagoa, ligusteroa, maxuxtondoa, sahats negarti eta ahuntz-sahatsa, pikuondoa, sagarrondoa, arnondoa, gereziondoa, gerezi erramuak, Arizonako altzifrea, elorri zuria, Kaukasoko izeia, gorostia, lertxuna, e.a.

Lerro hauek enpresa honek egiten duen lan hori eskertzeko eta horretan jarraitzeko eskatzeko izatea nahiko nuke, nahiz aldi berean, bere "zeregin nagusia bazterrek poluzionatzea" bada ere. Konpentsazio bat ote?

Xanmen

Unanue

GOZOGINTZA

Nagusia, 17 ☎ 88 15 51
Santamaria, 10 ☎ 88 11 49
J.M. Barandiaran, 9 ☎ 88 88 36
Obradorea: Filipinas, z/g ☎ 88 12 65

ORDIZIA



Legazpi kalea, 4
Tfona: 880406
ORDIZIA

"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"



Kale nagusia, 35 Santa Maria, 19
☎ 88 77 58 ☎ 16 00 44
BEASAIN ORDIZIA

Andres Arizkorreta: "Traktore modukoa izan gaitezke inguruko enpresa txikiagoentzat"

Enpresa honi esker aurre egiten dio Goierrik aurre egiten dion bezala ekonomi-krisi latzari. Jakina da CAF ondo dabilena, baina "abiadura handiko tren" horren martxari gertuagotik erreparatu nahi izan diogu, bere Zuzendari Orokorren laguntzarekin.

Andres Arizkorretak 38 urte ditu, donostiarra da (aita Zegamakoaren zuen), Deustun ikasitako ekonomilaria. Karrera bukatu eta segituan hasi zen CAF-en 80. urtean. 3 urtez geroztik Zuzendari Orokorra da eta lan asko ari da egiten euskara arloa eguneratzeko eta normalizatzeko bertan.

Orain dela ia 100 urte, CAFek trenbideetako materiala egiten du, eta "eskuratu dugun esperientziaz harro gaude", dio Arizkorreta jaunak. "Sektorean iraute honek, beste zenbait kausa teknikoen artean, azpiegitura nahikoa integrala konfiguratu digu, gutxienez beste zenbait fabrikatzaileen artean ohizkoa dena baino integralagoa, eta abantaila konpetitiboak ematen dizkigu, 'burnibideetako teknika globala' gehiago menperatzen baitugu", aitortzen digu Andresek.

Beasaingoa da Taldeko fabrikarik "siderurgikoena"

GOIERRITARRA.-CAF enpresaren banaketa, fakturazioa, e.a. deskribatuko diguzu?

ANDRES ARIZKORRETA.- CAFek hiru faktoria ditu Estatu Espainoan, Bulegoak Madrilan eta filial ko-



Arizkorreta: "Giza errekurtsoen politika egokiak posibilitatuko du gure politika guztia"

mertzial bat Mexikon, eta mundu osoan zehar barreiatutako zenbait merkatal ordezkari ere bai. Azken urteotako gure fakturazioa honakoa da: 1990ean, 22.559 milioi pezeta; 91an, 21.802 m.-pzta.; 92an 30.770 m.-pzta. eta 93an, 39.800 m.-pzta.

G.- Funtsean, zer egiten du gaur egun CAF enpresak?

A.A.- Produksioari dagokionez, gure ihardueren ardatza burnibideetako material mugikorraren fabrikazioa eta konponketa da, nahiz eta beste zenbait alor ere ukitzen ditugun, hala nola, trenbideetarako osagaiak edota fundizioko zenbait pieza, oso merkatu desberdinetan saltzen ditugunak. Geure fakturazioan berria den beste aspektu bat, gure bezeroei dagoeneko zerbitzua egiten dioten produktuen mantentzearen dagokiona da. Alor honetan sakondu nahi dugu, abantailak ematen baitizkio bai burnibideetako ibilgailuak erosten dituenari eta baita guri ere, fabrikante gisara.

G.- Gehien ajola diguna Beasaingoa da: zenbat langile ditu gaur? Zehaztu dezakezu Fabrika Haundian produzitzen dena?

A.A.- Beasaingo Fabrikari, Konpainiaren egoitza sozialean, 1.550 pertsonak lan egiten dugu. Enplegatu horietatik 150 pertsona titulatu da eta 270 bitartekoak. Beasaingoa dugu taldeko fabrikarik "siderurgikoena", bertan baitaude ezaugarri hori ematen dioten zenbait tailer. Hemen daukagu Estatu osoko gurrupilekiko Forja eta Laminazio istalakuntza bakarra. Gainerantzean, adierazi behar da CAFen era guztietako burdinbide ibilgailuak egiten direla, hala nola, tren makinak, bagoiak, bidaiarietarako kotxeak, metroak, metro-aurrekoak eta baita ere burdinbide esturako ibilgailuak.

G.- Tren mota guztietan, trakziodunak eta garraiatuak bereiz daitezke. Teknologia, diseinua, bertakoak dira?

A.A.- CAFek bere teknologia propioa garatu du eta bere produkzio area guztietan aplikatzen da hau. Bere ibilgailu guztien ikerketa eta diseinuan aplikatzen da, bai eta bere produkzio eran, produkzio metodoak hobetzen saiatzen gara. Bestalde, gure produktuen gamma oso osatua da. merkantzi-bagoietatik hasi eta Metro sofistikatuetaraino, lokomotoretatik edota bidaiarietarako auto-erremolkeetatik paseaz.



G.- Esan al liteke Espainia-mailan trenbideko materiale egile nagusia dela zuena?

A.A.- Gurea Estatuko fabrikatzaile liderra da eta Europako inportanteenetakoa, ez bere tamainuagatik, bere prestakuntzagatik baizik. Trenbideetako materialaren fabrikazio soilean aritzeak adi egotera behartzen gaitu eta gogor lan egitera nazioarte mailan lehiarako maila altua lortzekotan.

G.- Izena eta izana baditu. Baina ezaguna da mundu mailan?

A.A.- Mundu mailan, populazio dentsitate handietan, ibilbide txikirako (50 km.) eta giza-talde haundien garraiorako balioko duen trenbidetako materialaren eskara handia dago. CAFek produktu efikazak eta kontrastatuak ditu merkatuaren sektore horretan hain justu. Fabrikatzeko eta diseinatzerako orduan, bezeroaren beharretara egokitzeko dugun flexibilitatea gehitu horri. Horrek ezaugarri espezifikoak ematen dizkigu eta, gainera, merkatal politika indartsua dugu; geroztik eta ezagunagoak

bihurtzen ari gara nazioarteko trenbideetako administrazioen artean, beraz.

G.- Azkenaldian, krisi garaioan, enpresa hau eredutzat hartua izan da lan asko lortzen asmatu duelako. Zein faktoreri esker lortu da hori?

A.A.- Halaxe da, geure fakturazioaz eman ditudan datuak isladatzen duten bezala, CAFek garaiz erreakzionatzen jakin izan du. Nolabait, gure Enpresak 5 urte aurrerago "jasan" zuen gaur



egungo ekonomi krisia. Hau zerari zor zaio, geure produktuak ezaugarri bereziak edo desberdinak dituela, eta horrek eragiten du, ekonomia kontestu orokorrean, magnitudeek ez gaitzaten harrapatu beste industriei bezala.

G.- Zein politika izango duzue datozen urteetarako?

A.A.- Indartsu apostu egin dugu etor-

kizunaren alde, beren efikazia frogatzen ari diren politikak azpimarratuz: geure teknologia eta produktu propioak garatuz, horietarako errekursoak gehituz; Konpainiaren esparru guztietan kalitate maila orokorra gehi-

"Krisiaren aurrean garaiz erreakzionatzen jakin du CAFek"

tuz (diseinua, erosketak, produkzioa, sal- ondoreneko asistentzia...); aktibo materialen berrikuntza eta modernizazio politikarekin jarraituz, industri-prozesuak hobetuz; Giza Errekurtsoen politikak sakonduz, enplegatuen parte hartzea sustatzeko oinarriak jarritz (Giza Errekurtsoen politika egoki bat ematen bada bakarrik izango da posible geure industria politika guztia, horren uste osoa dugu).

Lerro estrategiko hauen aplikapenaren medioz eta ekintza zehatzetarako ere horien bidez egin ahal izango dugu aurrera geure lehiakortasunean. Guzti horrek, dudarik gabe, gero eta merkatu gehiagotan askoz presentego egotera eramango gaitu. Uste dugu hau dela etorkizunerako garantia bakarra eta lerro horrengatik egin dugu apustu, enpleguari eusteko eta selektiboki enplegu berriak hartzen joateko. Elementu "traktore" moduko bat izan gaitezke, ingurune hurbileneko enpresa txikiagoentzako; hauek ere, eusteko eta, behar bada, enplegu berriak sortzeko gai izango dira.

Mikel Aramendi

**MARI JOSE
MERTZERIA**
Kinkila-denda

☎ 887267
S. Inazio, 14 (Galeriak) BEASAIN



LADA

ARANDIA
Garajea
AUTOEN KONPONKETA

N-1, z/g Iurre auzoa
Tfona: 88 09 47 OLABERRIA



IBAI - ONDO

**ZURGINTZA
HALTZARIAK**
P.V.C.ko LEIHOAK

Tailer eta erakusketa:
Antzizar Auzoa, z/g.
Tfona: 880543 BEASAIN

Zubi azpian

A mari bisita egin nion orain hurrengo batean, arratsaldean zer-soma nengoela, gure jaio-tetxetik herrian beste muturre-ra joan eta Ormaizteiko trenzubi ospetsuaren azpian egondu nintzen, lepoa oker-oket eginda, gora begira. Zubi zaharraren azpian ipini eta luzetara harrigarri egiten ari diren berriaren ikusmiran, egon ere. Aidanean, zaharra ere halatsu (luzetara eta bertantxe, alegia) egin bide zuten bere garaian, 1863-64ko urte auskaloko haietan. Gokotsen edo errodiloen gainean sobrare orduan, tiriki-tarraka, tira hemendik eta eutsi han... Ikusiagatik, ordea, jakin ezazu, bada, nola demon-tretan zer asmatzen ari diren gaur; begiak begira gastatuagatio (nere kasoan behinik behin), ez baitzaio tankerarik ematen: zubia alde bietatik erdira zuzen datorrela, bai, baina puskatan erori gabe nolatan, demonio arraio! Hartarakoxe langileak dira nonbait eta ikusteko moduan dihardute. Zaharra 228 m. omen da luze, 34 m. garai (guri ttikitan 100dik gorakoa iruditzen zitzagun arren), 100.000 k. burni (giltzetatik libratuko balira, akabo Zubipe eta zubipea!). Luzean eta garaian alderik ez du noski berriak; burnian hurrik eman ere ez, ordea. Halare sendoago omen dago!



Baina ez nindoan ni horretara... Zubi zahar-berrien azpian ikusmiran nengoela, oroimeneko zokoak arratsaldeko argi epeletara jarri eta umetako kontu elemena esnatzen zitzaidan eta etortzen. Eta hortan, tranbia bat fortunatu zitzaidan Zumarragatik Irun alderako bidean (behera, beraz), kirriki-karraka, mantso-mantso, antzinako lokomotoraren kea baino ere alperrago. *“Animalia burdinazkoa, kobrezkoa, altzairuzkoa, hanken tokian gurpilak dituen”* idatzi zuen norbaitek. Ez, ho-

ratio, aspaldi handiko haren gisara, *“ur irakina edan eta sua jaten”* zuenetikoa. *“Ez daukat beste alimenturik: suba, kia ta txingarra”*. Aterako zitzaien hari ere, astoari putza baino gehiago, kea eta txistua. 2. karlistadakoan, XIXaren hondarrean, halamoduz ibiliko ziren trenak: burrundatsu, kea eta txistu jario. Eta gerratean, jakina denez, pikardiak derrigorrak eta garai hartantxe egin omen zizkieten lehen kalteak gure burnizko monumentuari (Gurea baita, arraioak ez baditu!, zo-



ORMAIZTEGIKO



UDALA

Eskulangintza Erakusketa Ormaiztegin

Aurtengo San Andres jaietako berrikuntza bat aurreko larunbateko Eskulangintza Erakusketa izan dugu. Goizeko 10etan hasita, bezperan halamoduz erretiratu zirenen estorbu handirik gabe, ofizio desberdin askotako erakusleak bildu ziren: kategileak, abarkagileak, gaztagileak, keramika-lanak egiten dituztenak... eta haien artean, nola ez, makila eta saski dotoreak egiten dituen Agerreko Antonio ere bai. Ikusmira polita eta interesgarria benetan guztien artean eskaini zigutena, bereziki dena eginda ezagutu dugunontzat, eta gauzak norbere etxean eskuz egin beharra zer den burutik pasa ere ez zaigunontzat.

Aurtengoan ikusteko aukerarik izan ez duzenok, ez larritu: Ormaiztegiara azaldu nahi zuen erakusle dexente geratu da etorri ezinik, eta datorrenerako zabalxeagoa eta hobexeagoa egiteko asmoa dago.

rioneko Eiffelek jasoa ez bada ere. Gora Alexandre Lavalley: bost inporta zaiak nei! Eta hiri, Gabiri, gabeko hiri...?). Kalteak, eta ez nolanahikoak, gerora nozitu zituen burni-mamitan, anaien arteko azken (!) gerratean. Aze bi ebaketa! Argazki zaharretatik ezagunak ditugu eta, bistan dago, jaso baino aisago erasten zela lehenago ere zernahi. 1937ko otsailaren 1.an dena konpondu eta hasirik izan behar zuten trenak berriz ere gora eta behera, "gau eta egun gelditu gabe beti zerbaiten karrayo". Txirritak esanaz gainera ikusten dugu orain ordukoa. Eta, aldeak alde, halatsu gaur arterainokoan...

Baina ez nindoan ni hortara ere... Ez,

Zubi zaharra hor dago. Berria aldiz, herritar guzien ahotan dabil

ez. Zubi zahar-berrien azpian lepoa okerturik ikusmiran nengoela, ttikitako gertakari elemena zetorkidan oroimenera. Txoroen memoria eta lertxunen hostoa sekula ez dira geldi egoten, izan ere, eta. Erreka iskinako txepetxak eta buztan-ikarak, galsoroetako gari balak eta metatxiloak, eliza atzeko pote-ule eta kuriketako jolasak... Zaharrak eta berriak. Sagastiberri eta Sagastizahar. Zaharrak berri... Zubi zaharrari, gaiso herdoitu pitzatuari, 91ko udaberrian barkazioa eman zion herriak ozta-ozta.



Barkazioa, zahartzeagatik. Eta agindua ere bai: egon zedila aurrerantzean isilik eta geldi: begi onez ikusia izango zela eta miretsia, harik eta pakea ematen zuen bitartean. Eta hor dago. Bizirik dagoen baino hildako itxura hobean, baina hor dago... Zubi berria, aldiz, herritar guztien ahotan dabil. Apar-apar dago. Lirañe omen da eta politte; baina ez ote dion, bada, zaharrak itsusiarena egiten. Damutxo du bakarren batek zaharraren aldeko botoa emana... Seguruxegoetan ere, aurretik ikusterik izan balitz sikiera! Ez diogu esker haundirik eman gure zubiari. Zaharrak berri...

Baina, baina... Ez nindoan ni hortara, ordea! Ez zen hau nik uxartu nahi nuen saila. Zubiarena aitzaki bat besterik ez nuen eta! Lapurretzetik hasi eta Sagastiberri bitarte luzean galdutako oroitzapenak, haur jolasak, gazte bizar-berriaren jokuak..., horiek nituen nik esan asmotan. Tokitan, alajaina! Korapilo ederrean katramilatu naiz. Barka. Hurrenagoko aleren batean akaso (zaharrak berri, berriz ere) askatuko ditut kiixtoak edo kibistoak. Pero, que dize...? Nik lehenak beize!

✍ Jexuxmari Mendizabal
(Telleikoa, "Bizargorri")

IÑAKI AUTOZERBITZUA EROSLE

- ✖ Bertako haragia
- ✖ Odolki txorizo eta tripaki bereziak

Zumalakarregi, 4
☎ 88 28 27
ORMAIZTEGI

EKAITZ Taberna

Gabiri-alde
Ormaiztegi ☎ 88 27 71

MURUA harategia

- Bertako haragia
- Odolki eta txorizoak

Maioara plaza
ORMAIZTEGI ☎ 88 27 64

GOIERRITARRA



88 96 12

SAGARNA ARRANDEGIA

☎ 88 68 73 (denda) ☎ 16 02 01 (etxea)
Zumalakarregi, 4 ORMAIZTEGI

Akabo festak

Etorri bezala joan dira aurtengo San Andres festak. Hainbat egunetan izan dugu ormaiztegiarrok zer ikusi eta zer entzun, nahi izan duen guztiak ongi pasatzeko aukera eduki du. Ez dezala aitzakiarik izan. Ormaiztegi zulo hontako ohizko Sanandres egunetako hotzak ere, ez dute inolako presentziarik izan. Orain arte hotzari aurre egiten jakin izan diogun herritarrok ez gara eguraldiaz jabetu ere egin.

Mendi Aste luze eta zoragarri batekin hasi ziren gure festak. Planta ezin hobia zuen paper gainean eta horrela ateratzen zen. Antolatzaileak ezin gustorago geratu ziren, jendearen erantzun eta interesagatik. Inurrategi anaiak eta herriko semea den Koke Lasa izan ziren, besteak beste, beraien esperientzia eta filminak erakusten. Kokek, gainera, bere txosnatxoa jarri zuen hurrengo espediziorako dirua ateratzeko. Aste hori amaitzeko, larunbatean Dotoreen Eguna izan genuen: armarioetako gona luze eta aitonaren txaketa jantzi eta egun osoa herriari bueltaka.

Azaroak 25, ostirala arte aste luzea izan genuen errekuiperatzeko. Asteburu gogorrena zetorren. Zubipe poliki-roldegian, herri afaria izan zen; aurretik orde, Paxkual eta bere banda suzuriaren artean txistulari.




Azken urteotan egunik "potoloena" izaten ari den larunbatari eman genion paso. Egurditik hasita, haurren danborrada. Urtetik urtera maila hobia erakusten ari dira gure txikienak, zenbaitek nahiko luke txiki hauen abilezia Donostiako danborradarako. Horrez gain, egun osoan zehar hainbat talde mozturorik ibili ziren. Urtetik urtera jende gehiago animatzen da. Robin Hood-en bila aritu zen taldeak eraman zuen 1. saria; herria txukundu baino, lardastu zuten kamineroek 2.a eta Jose Mari Gorostidi alargun beltzak bakarkakoa. Eguna bukatzeko karaokea, tarteka kaleratzea egon bazen ere, belarritako mina egiten zutenak ere taularatu ziren.



Festei bukaera emateko, San Andres Bezpera eta Eguna. Joan-dako asteartean helduen danborrada, betiko xelebrekeriaz, baino seguru batzuk ondo pasatu zutela. San Andres Egunean, asteazkenez, goizean behintzat musika nagusi, akordeoi kontzertua, abesbatzak, txistulari-dultzaineroak, e.a. Ohizko Odolki Lehiaketa ere bai, eta nola ez, muturtxo bat jateko aukera. Arratsaldeko herri kirolekin eman zitzaizen amaiera San Andres festei. Aurtengoak horrela beharko du.

Jon Aldanondo



- Motore elektrikoak
- Korrante alerno generatzaileak
- Haizegailu industrialak

KUKO

Jantetxea

Kuko, gure txef-ak zure sabelak esker-tuko duen menua eskeintzen dizu:

Astelehenetik ostiralera menu bereziak.
Eguerdietan 2.000 pzta. + BEZA

Toki mugatua dago, eskaerak aurrez egin.
On egin diezazula!

Berjaldegi plaza z/g
Tfnoa.: 88 28 93
ORMAIZTEGI

Ohitura onak

Era askotako ohiturak daude Ormaiztegiko jaietan. Ohitura zahar-rak, berriak eta baita zaharberrituak ere. Lehene-takoak, aspalditik San An-dresetan errotuak egon izan diren ekintzak dira, hala nola, ohizko Odolki Lehiaketa eta antzerakoak, urteetan zehar aldaketa handirik gabe man-tentzen direnak.

Bigarren erakoak azken al-dian eta batez ere belaunal-di berriek bultzatuta sortzen diren berrikuntzak lirateke. Hauek dira bereziki San An-dresei indar berria ematen ari zaizkienak: Mozorro Eguna klasiko bihurtu da eta geroz eta jende gehiago ari da inguratzen gainera; bestalde, ez genuke ahaztu behar Eguna Elegantea eta Pala Txapelketarik. Aurten, gaine-ra, festagune berria eta bertan izandako



zenbait ekintza ere agertu dira. Jubi-latuen Elkarte eta Zikero erretegi ar-teko aparkalekuaz ari gara, mendiko txozna eta gazteen txoznez gain, hain-bat ospakizunen zentrua izan den eske-

natokia kokatuak egon diren tokia. Bertan, kontzertuetatik hasi eta makina bat eztarri urratzearen arduradun izan zen karaokea izan ziren.

Azkenekoz, ohitura zaharberrituak ditugu. Hauek ere bere garrantzia ba-dute, ohituren tradizioaz gain aurrean aipatutako odol be-rria batean biltzen dituztela-ko. Gazteek zentzu berria ematen diete urtez urte ospa-tzen joan diren ekintzei, hala nola tanborrada. Antzinakoa eta etorkizuneko batera-tzean gauza berriak sortzen dira, eta honetan izan daiteke

gure jaien etorkizuna. Komeni da hor-taz bide hau ez ahaztea, festak bizirik iraun dezan.

Lnaki Leturia



Zumalakarregi, 1
 ☎ 88 51 68
ORMAIZTEGI



LANCIA
ETXE - AZPI

☎ 88 10 61 - 88 29 46
ORMAIZTEGI



Tfnoa.: 80 16 99

Liernia Auzoa

MUTILOA

ARANTXA
taberna

Pintxo eta ogitartekoak

San Andres, 13
 Tfnoa.: 88 28 22 **ORMAIZTEGI**

JESUS DEBA
HARATEGIA

Odolki, lukainka eta bertako txekor haraginan berezitasuna

Zumalakarregi Plaza, z/g
 ☎ 88 26 59 - 16 00 75 **ORMAIZTEGI**



JOSETXO

San Andres, 31
 ☎ (etxea) 88 27 72
 (arrandegia) 16 13 66
ORMAIZTEGI

LAZKAO

“Giza garapena. Iparra-Hegoa” erakusketa

Euskal Komunitate Autonomoko Erakunde Ez gubernamentalek antolatutako erakusketa izan da ikusgai Udaletxeko Areto Nagusian, azaroaren 14tik 19ra. Kultura, ingurugiroa, hezkuntza, gosea eta pobrezia, giza eskubideak, emigrazioa eta osasuna atalak landu baino gehiago aipatu egiten dira erakusketan, esaldi eta argazki esanguratsu eta datu estatistiko interesgarriak emanez. Ezer konponduko ez badu ere jendea zerpentsatua ematea du helburu erakusketak.

1987-88tik ari dira gutxi edo gehiago Erakunde Ez Gubernamentalak (ONG) elkarlanean. Oinarritzko kezketako bat zera dute talde hauek: azken hamarkadetan herrialde aberats eta pobreen arteko ezberdintasuna geroz eta handiagoa dela; pobreak pobreago eta aberatsak aberatsago.

Garapena garapen izango bada giza-ki guztiontzat, hau da, aberasgarri eta mesedegarri, derrigor orekatua izateaz gain natura errespetatu behar du eta etorkizunean pentsatzen duena, giza-kiok erabakitakoa, gizakiok egina eta



gizakiontzat izan behar du; pertsonen arteko desberdintasunik gabea.

Errealitatetik abiatu, pentsatu ondoren jokatu eta itxaropenean oinarritutako etorkizuna aurkeztu nahi du erakusketak. Jada gure herrian ez badago ere, herriz herri ibiliko denez erakusketa, ikusi gabe geratu zaretenok hurrengo aukera aprobeatza dezakezue.

Ikus-entzunezko ekipamendua udaletxean

Urriaren 11ko Gobernu Batzordearen erabakiz, Udaletxeko Areto Nagusian ikus-entzunezko ekipamendua

jarriko da; horrela, hilean behin egiten diren Osoko Bilkurak eta beste hainbat taldeek egiten dituzten bilerez gain, iharduera berri batetarako prest geratuko da Aretoa, diapositiba emanaldietarako adibidez.

Elkarriren BTP

Aurtengo udazkenerako antolatu dituen Bake Topaketa Partehartzaileak (BTP) direla eta Elkarrik Lazkaon ere hainbat ekitaldi antolatu ditu.


Alde batetik, beste 80 herritan bezala, mahai ingurua antolatu zen herriko zentsutik sortez aukeratutako 100 lagun artean. Ehunei gutuna bidali bazitzaie ere, zazpi lagun besterik biltzerik ez zuten lortu. Kezkagarria!

Bestalde, “Zuk zer diozu?” galdera medio inkesta bat egin nahi da herritar guztien artean. Ikerketa soziologikoa burutu eta jende artean egindako inkestan ateratako hamar gaiei buruzko elkarriketa giroa herritarren artean zabaltzea omen dute helburu.

*Mari Joxe Madariaga
Joxe Mari Ormazabal*

SEI IZARRETA KO BIDAIA

IRIZAR, K.E. MUG-ak, XXI mendeko ibilgailua den Century-a sortzean, etorkizunari aurea hartu dio. Delako ibilgailua, I+D ekipoa eta ekoizpen prozesuaren uztartze bikainaren emaitza da. Izan ere, ordenagailuaren bidezko fabrikazioak kalitate aerodinamikoak, ziurtasuna eta erosotasuna eskaintzen dizkio, arloaren abangoardian kokatuz. Zigilatze-sistema berriak bere efikazia zein iraupena azkartzen ditu, mantenimendu, aerodinamika eta kontsumoari esker errentagarritasuna ere bermatzen delarik.



San Andres 6-8, 20216 ORMAIZTEGUI
Tel.: 88 19 00 - 88 16 50. Fax: 88 91 01



Udaletxeko berri

Azken plenoan Udal Batzaren gehiengoak 78 miloiko maileguaren kontratazioa onartu zuen. Honela, osaturik gelditzen da aurtengo aurrekontua. HBren laguntza baliagarria izan da alkatearentzat, inbertsioak egiteko zegoen blokeoa hausteko orduan. Gogoan izan urriaren 4an HBk ez zuela mailegu kontratazio hau onartu, 94ko inbertsio guztiak geldirik geratuaz honela. Dena den, proiektu asko kinka larrian daudenez eta diru-laguntza horren beharrean, posturaz aldatzea erabaki dute HBkideek, "herriari zerbitzekotan" daudelako. San Juan auzoko urbanizazioa, rugby zelaia, Malkaskoko zubia eta abar aurrera eraman daitezke, beraz, Bilboko Bankuari eskatu behar zaion mailegu horren bitartez. HBk aldeko botoa eman du, baina

ez du kritikarik egin gabe utzi alkatea.

Estanko etxeko errestituzioa

Estanko etxeko margoen errestituzio-lanak hasiak daude dagoeneko. Aurrekontua 2.600.000 pezetakoa da eta esan, orain lau urte ere lanak egitekotan ziren arren, azkenean burutu ezinik geratu zirela. Aurrekaldeko margook Gipuzkoan dauden bakarrak omen dira eta berauok XVII. mendeak dira. Gaur egun ia ezabatuak daude, behekoaldekoak batez ere eta, beraz, hiritarren laguntza eskertuko luke obra-egileek argazki bidez edo erraztasunak emanaz.

Rugby-zelaia

Gobernu Batzordeak rugby-zelaia-ren proiektuaren idazkia Jorge Montoñola eta Alvaro Perez arkitekturek egin dezatela erabaki berri du.

Gogoan izan hau egiteko akordioa joaneko urriaren 25ean hartu zuela Udalak eta berau orain futbol-anexoa dagoen tokian joatekotan dela, nahiz eta oraindik gauza asko zehaztu gabe egon.

Oria ibaia garbi

Oria ibaiaren garbiketa lanak bukatu ondoren Udalak deia zabaltzen die herritar guztiei mesedez zaborrak dagozkie tokietara botatzeko eta ez ibaira, orain arte askok egiten duten bezala. Guztira 30.000 tona zabor baino gehiago bildu dira lan hauetan eta baita enbor eta sastraka ugari ere ere. Guzti honekin ibaiaren ingurugiro-baldintzak berreskuratzea eta hobetzea bilatu nahi da.

✍ Aitor Calvillo

ATAUN

Historiarako frontoia

Azaroaren 19an bota zuten San Gregorioko frontoi zaharra. Toki berean, frontoi estali berri bat eraiki behar da. Proiektua SESTRA Ingenieros-ek egin da, 81.000.000 pezetako aurrekontua du eta Zaladibiko Construcciones Suquia, S.A.-k bideratuko du sei hilabeteko epean.

Honenbestez, frontoi zaharrek berarekin eraman du historiaren txoko urrutira (eramango al zuen behintzat!) hamaika urtetan herri honetako auzokeri iturri izan den polemika antzuenetako bat. Gogoan izan badela oraindik ere, San Martinen eraikitako kirodegia onartzen ez duen jenderik, eta badela oraindik ere, San Gregorion egin behar denaren kontrakoa denik ere.

Edozeinetara ere, Ataungo Udalbatzak aho batez onartzen duen zera gutxietako hoietako bat da frontoi berria eta gainontzeko kontuak, denborak berdinduko al ditu.

Liburutegia eguneratuz

Gero eta errezagoa da udal liburutegia



gian liburu berriak topatzea. Askotan garestiegi direlako eta, erosi gabe utzitako liburuak, ezjakinean herriko liburutegian bertan ditugu. Era guztietako liburuak direla gogorarazteaz gain, hona hemen hauetako batzuk nahasian emanda, Iñigo Goikoetxea arduradunarengana jo ondoren:

"Gizona bere bakardadean", "Kutsidazu bidea, Ixabel", "Abajo las Quintas", "En estas casas ya se sabe", "Del amor y otros demonios"...umentzako ipui eta komiki pilo bat, musikari buruzko gaiez idatzitakoak, filosofia edo

historia alorrekoak, Ataungo hemeroteka, e. a.

Bestalde, irakurlegoa finkatua izatez gain, hazten doa; baina jende larriaren falta somatzen da bertan. Beharbada, oraingo gazteentzat ez bezala, aukera hori izan ez delako eta ohitura berri hau hartzeak lana emango du.

67 langabetu

INEM-eko datuen arabera 67 herritar zeuden lanik gabe irailaren 30ean. Hauek parekatuta daude sexuari dagokionez, 34 emakumezko eta 33 gizonezko bait dira. Eskaria bideratuta duten langile hauek multzoka sailkatuz, gehienak OHO bukatutakoak (25) edo bukatzera iritsi gabeak (21) dira; asko dira oraindik bere lehen lanpostuaren bila dabiltzanak (20) eta gehienak peoi lanetarako (24) edo zerbitzu alorrerako (14) nahi dute lana.

✍ Joxe Begiristain

Usurbe Zinemako esplotazioa C. M. Ansoalderentzat

Tolosako Leidor zinema aretoa eta Azpeitia, Azkoitia eta Oñatikoa bere esku dituen Cruz Maria Ansoalderen enpresak zuzenduko du, abenduaren 23an inaguratuko den Usurbe zinema aretoa eta erakusketa gela. Urtebeterako luzapena izango du kontratuak, eta esplotazio kanona 3 milioitakoa izango da. Udaletxeak zinemantzokiaren erabilpena mugatua izango du, urte osoan zehar 20 egunetan bakarrik erabili ahal izango duelarik. Zine emaldiak asteko 4 egunetan eskainiko dira. Ostiral, larunbat eta igandetako saioak ziurak badira ere, 4. eguna oraindik zehaztu gabe dago. Dena den, osteguna izango da seguruenik.

Kontratuaren arabera, zine-kluba edo zine-forum emaldiak egiteko aukera legoke eta hilabeteen behin 'ikuslearen egun' bat ere finkatu beharko da.

Eraikuntzari dagokionez, 432 eserleku jarri ditu. Orain zenbait frogatik tekniko egiten ari dira makinaria eszenikoari, argiei, audioari eta aberrei dagokionez.



Erakusketa gelako lanak atzeratuagoak daude, baina hala ere, abenduaren 23rako prest egongo dela espero da. Lehenengo erakusketa, Nestor Basterretxearena izango da.

San Nikolas 'Egunkaria' ren alde

Azken urteko ohiturari eutsiz, aurtenera, San Nikolas egunean, abenduaren 6an, 'Euskaldunon Egunkaria' ren alde eskean eta kantari arituko dira beasaindarrak. Zita, Barrendain plazan 7retan da. Garai bateko goierritar euskaldunak, or-

duko beharrei eta usuarioei erantzuteko ibiltzen ziren eskean San Nikolas egunez. Gaur egun, 'Egunkaria' ri laguntzea da helburua. San Nikolas bizar zuriak, bertsolariek, trikitilariak eta hainbat eta hainbat ahots doto-reek ondoko kopia hau kantatuko dute: "Abenduaren seia gaur dugu/ San Nikolasen eguna/ Euskaldun denon 'Egunkaria' / laguntzea nahi duguna."

Loinatz Txiki Haur Kantatan

On Jose Migel Barandiaranen omenez eginiko I. Haur

Kantatan parte hartu zuen pasa den azaroaren 20an Loinatz Txiki abesbatzak. 1.800 ahots elkartu ziren Donostiako Anoetako Belodromoan Francisco Escudero konposaturiko obra aurkezteko. Escudoren lana Barandiaranen zenbait ipuin mitologikoetan oinarritua dago. Haur guzti horientzat bazkaria eta askaria prestatzearen ardura, Beasaingo Abesbatzak izan zuen, hainbeste haur gosetiren gosea asetzearren.

✍ Izaskun Salazar

LEGORRETA

Zinemaren gora-beherak

Emandako hitza betez Xabier Iraolak idatzi luze bat zuzendu digu herriko zinemaren gainean. Proiektorea egoera txarrean eta zinema itxita zela, Udala Diputazioarekin gestioak egiten hasi zen eta, "lehen egunetik aldeko jarrera azaldu bazuten ere, argi utzi zuten zinemari diru publikoa sartu baino lehen, Parrokia eta Udalaren arteko alokairu kontratua luzatu egin beharko zela".

Diputazioaren baldintzak ezagutu eta gero Parrokiarekin harremanetan hasi zirenean, lehen baldintza bezala, zinemaz hitzegiten hasi baino lehen, Udalak argitu beharra zeukan zer nola parte hartuko zuen Erretore Etxearen obretan. "Hitzegiten hasi baino lehen baldintzak jartzeko ohituraren aurrean gure haserrea azaldu arren, hainbat urtetan gela horietatik pasa den haur kopuruaz jabeturik, pentsatu genuen herriak parte

hartu behar zuela obra horietan eta horretarako jarri zituen Udalak 2 milioi", dio kultura zinegotziak.

Auzi hori argitu eta gero, zinemaren auzia Parrokiak duen patrimonioaren arazoaren barne (hain beharrezkoa den eliza berritzea) sartzen zuela konturatu zen Iraola. "Gurasoekin izandako bileran agertu nuen bezala, Diputazio eta Gotzaitzekoekin bilera bat egitekotan ginen baina badirudi horren aurretik Diputazioak elizaren egoera ikusi nahi izan duela. Azaroaren 3an Diputazioko teknikariak bertan izan ziren eta elizaren birgaitzearen proiektua egiten hasi eta zein epetan egin eta finantziatu beharko litzatekeen aztertzen hasi beharko dugu. Herriko erretoreak, Xabier Azkoitiak, zinemaren gaia tratatzeko asmoa agertu digu. Ikusiko dugu hemendik aurrera zer gertatzen den".

Negoiazio prozesua eraman duen zinegotziak zenbait konklusio ateratzen ditu bukatzeko: Udalak argi utzi nahi du ahalegin guztiak egin dituela zinema eta azpiegitura berritzeko, inbertsioak egiteko, zinema urte batzutarako ziurtatzeko; faktore pertsonal eta erlijiosoak alboan utziz, patrimonio konpontzeko eta errehabilitatzeko aldeko jarrera du Udalak, ondarearen jabegoa zalantzan jarri gabe; zinemaren kostua ikusirik, bideoa izan liteke alternatiba eta bideo modeloak ikusten hasiak dira.

Hurrengoan zinemaren berrikeritzaren notizia emateko zuzenduko zai-gula espero bukatzen du idatzia.

✍ Josune Amondarain

Sanikolas: bota, bota, Jainkoak emango do ta!

Aspaldiko ohiturari eutsiz, datorren asteartean San Nikolas eguna ospatuko da Seguran. Akontezimendu aparta. Hilaren 6ko ekitaldiari goizeko 10,30etan emango zaio hasiera Eliza Nagusiko San Nikolasen al-darean egingo den bedein-kazioaz. Ondoren Jermanenera joango dira obispotxoa eta neska-mutiko koadrila kantu-eskeari ekiteko. Orain dela 150 urte ere egun hau ospatzen zela egiaztatua dago. Obispoz jantzitako 6-7 urtetako mutiko bat eta

14ren bat urtearteko neska-mutikoak santuaren kanta abestuz, etxez etxe ibiltzen dira, balkoietatik botatzen dizkieten fruitu, goxoki nahiz txanponak bilduz bakoitzak daraman poltsatxoan.

Zenbait aldaketa ere izan ditu ohitura honek. Beste batzuren artean, aipagarria da orain 30 urte San Nikolas bezperan ospatzen zela egun hau. Garai batean zaldi gainean ibiltzen omen zen, ondoren oinez ere ibili izan da, eta gaur egun poniaren gainean ibiltzen da. Gaur herriari jira osoa ematen zaio, baina lehen lehenbizi bikarioaren etxera joaten zen San Nikolas, alkatearenera gero, bere etxera hurrena, ondoren etxez etxe abiatzeko. Balkoietatik botatzen zaizkien gauzen artean ere kontua aldatu da, egun gehienbat goxokiak



Sanikolas txikia eta neska-mutikoak eskean.

eta txanponak badira ere, duela gutxi-rarte garaiko fruituak eta jangarriak izaten ziren, piku, intxaur, mizpira, sagar eta abar. Esatekoa da orain dela 12 bat urte arte erdaraz abesten zutela haurrek eta gaur euskarazko abesti propioa baduela San Nikolasek. Berak ematen dio kantuari hasiera:

San Nikolas txikia
Gure ganbaran hazia
Gure ganbaran zer dago
Haren gona gorria
Bost eta sei bakalao jale
Bost eta sei hamaika
Txorizorik ez baldin bada
Berdin dela lukaninka

"Bota, bota, Jainkoak emango do ta!" karraxi eginez hasiko da balkoie-

tatik zaparrada erortzen, bakoitzak ahal duena bere poltsara jasoaz.

Azken 73 urte hauetan aldatu ez dena Ramona Leze-taren lana izan da, bera izan baita Sanikolasen jantzia urte guztiotan gorde eta Santua jantzi izan duena. Santu txikiaren aukeraketa OHoko 1. mailako mutikoen artean zozketa bidez egiten da. Aurtengoa 6 urtetako Hugo Gonsalves Gomes izango da.

Sanandres eguna hilaren 4an

San Andres eguna aste horretako igandean ospatu izan da aspaldidanik. Aurtengoa abenduaren 4ra pasatu da. Meza 12,30etan izango da eta ondoren Udalak eskeinitako hamaiketako eta herriko txistularien saioa ermittaren inguruan.

Mendiko karnetak

Segurako Kirol Elkartearen mendi sailak jakinarazten du 95ko mendi karneta atera edo berritzeko garaia heldu dela, eta hori egiteko aukera hurrengo bi ostiraletan izango dutela, abenduaren 2 eta 9an, 20etatik 20,30etara ohizko tokian.

Joseba Telleria



Tfona: 885500 ORDIZIA

DE LA CUESTA
Etixerako eta bestetarako
oihal biltegia

Plaza Nagusia, 7
880432

6 posta kutxa
ORDIZIA

KATTALIN

ERRETEGIA-SAGARDOTEGIA
Sagardoa txotxetik

Antzizar Auzoa, 4 - "Biona" Etxea
(Polikiroldegi ondoan) 889252 BEASAIN

BARANDI



TABERNA

Ampuero, 1 (Geltoki aurrean) Tf.: 16 13 18 ORDIZIA



Giro jator eta atsegina

BASAKANA

ITURRIOZ 11
BEASAIN

Rosario Mendizabal garaile mondeju lehiaketan



Joan den igandean, I. Ardiki Eguna-ren barruan, Zaldibian jokatu zen mondeju lehiaketan Rosario Mendizabal zaldibitarra izan zen irabazle. Tolosan harategia daukaten Sukia anaientzat izan zen 2. saria eta 3. tokian, berriz, Gaintzako Maria Jesus Olano sailkatu zen.

Arrakasta handia izan zuen igandeko Ardiki Eguna eta, adierazita zegoen moduan, mondeju lehiaketa suertatu zen ekitaldirik inportanteena. 42 lagunek hartu zuten parte, hauen artean kanpotarrak asko: Lasarte, Tolosa, Errezil, Lizartza, Billabona e. a.etik etorriak. Hamabi adituk osatu zuten epaimahaia eta tartean jatetxe ezagun eta ospetsuetako arduradunak: Arrese jatetxeko Kontsuelo Otamendi, Zepaiko Alejandro Izagirre, Zaldiako Juanito Rubio eta Gipuzkoako Ostalarien Elkarteke Patxi Diez.

Lehen bueltan aurrera pasatako 10 kazuela onenak honako hauenak izan ziren: Begoña Lizarraga, Marisa Urkola, Mari Tere Mendizabal, Josune Urkola eta Rosario Mendizabalenak, denak ere zaldibitarrak; Lazkaoko Kaletane Etxeberria, Olaberriko Pello Goikoetxea; Gaintzako María Jesús Olano; eta Alegiko Leire Gorostiaga. Rosario Mendizabal garaileak eraman zituen lehenengoarentzat zeuden txapela eta 50.000 pezetak. Sukia anaiek 35.000 pezeta jaso zituzten eta Maria Jesus Olanok 20.000.

Mondeju lehiaketaz aparte ere bazegoen ikuskizunik: artile eta gaztagileak, erakuste etnografikoa, gaztandegia, etab. Goiburu eta Iraola eta gogoz aritu

ziren kantuan. Eta egunari tokatzen den moduan amaiera emateko lagunarteko bazkaria.

Rosario Mendizabal Urtsutxikin jaio eta gaur egun Oberena etxean bizi da. Inor baldin bada, artzain terrajekoa dugu Rosario.


Urtsutxikin gure gogoramen guztian izan dira ardiak eta orain ere badaude. Bestalde, igandean ederki erakutsi zuen negar errazekoa dela: irabazle zela jakin zuenean malakoak atera zitzaizkion, poz eta hunkidura-malkoak. Ez genuen hitz asko egiteko modurik izan, baina hauxe esan zigun behintzat: *"Ez nuen espero irabazterik, 42 asko dira eta. Mondejuak nik natural-natural egiten ditut, tripa-kiak ere botatzen dizkiet"*.

Mondejuaren historia

Herriko kronista naizelazkora, askok galdetu izan didate ea ba ote dakidan mondejuaren hasiera noizkoa den. Beti erantzun berdina eman behar izan dut orain arte: *"Ez dago datu eta datarik"*. Argi apur bat egin lezaketzen zuzi-puntta batzuk, halabeharez, igandean berean eman zizkidan Arotxaneako Balentina Garmendiak. Baserrietan lehendik ere egingo omen ziren mondejuak, baina ez omen zen jotzen tabernarako moduko janarizat, bastoegia nonbait; eta aintzindari edo mondejua tabernan sartu eta kanpoan ezagutarazi zuena Arotxaneak taberna izan omen zen. Hori zela 45 bat urte direla esan digu Balentinak.

Hemen artean mondejua erdi ezkutan-edo jaten zen bitartean, Arotxanera Bilbotik eta etortzen omen zen jendea mondejuak jatera. Goierrri eta inguruko jende handia ere: Botika Zaharreko Jaurregitarrak, Goenagatarrak, Aristrain bera, Diputazioko jendea, etab. Hara zer menu prestatzen omen zieten Arotxanean: Zopa, mondejua, ardikia, eta esne-arroza. Beste bitxikeria bat ere kontatu digu: bere aitak, Bentura zenak, probatzen omen zituen aurrena. Baina

mondejuei, onak zeuden, Fabrikako Gabino Erauskinek, "Amerikanoak", ematen omen zien antza. Nola uste du-zue? Saldaren koloretik eta mondejuzopa hantxe bustirik probatuta.



Joxepane Herri Ostaturia inauguratu

Zaldibiko HBk bere egoitza du azaroaren 26tik aurrera. Bada denboraldi bat garai bateko "Juan Kruzenea" edo geroago "Joxepanea" izan zen taberna hartu zutela. Lokal horixe da orain HBren sede bihurtu eta taberna bezala funtzionatuko duena. Obra handiak egin eta instalazio modernoak ipini dituzte. *"Hau ere lortu dugu zatotz ospatzeraz"* lemapean egin zuen inaugurazio ekitaldia. *"Erasotzeko zai-zai dagoen ekaitzak, berehala jaioko den haritz horri, defenditzen irakatsi besterik ez dio egingo, ziklo berri bat da"* zioen inaugurazio-berria zabaltzen zuen orriak.

Inaugurazio garaian "Zaharra", "Pototo", Juanito Mendizabalena eta beste argazkiren bat edo beste zeuden murala ikus zitekeen Joxepeneako atari aurrean. Inaugurazio ekitaldian, noski, ez zen falta izan azkeneko gertakizunei buruzko aipamenik. Esate baterako, balkoiko pankartan honako hau irakur zitekeen: *"Txorta, gogoan zaitugu. Er-tzainak hil du"*.

Lau pertsona arduratuko dira tabernako martxaz: Romani Arizkorreta, Iñaki Navío, Oroitz Etxabe eta Josebe Esnaola.

 **Rufino Iraola**

Bi lerrotan



XABIER IMAZ segurarrak debuta egin zuen profesionaletan azaroaren 25ean Tolosako Beotibar pelotalekuan. Martin Alustiza herrikidea izan zuen lagun Imazek. Debuta dena den, ez zen borobila izan, 22-13 galdu baitzuten segurarrak Gorostiza-Xanti bikotearen aurka.

RAMON AGIRRE 'MARRON' Antartida aldera joana da, 4.884 metroko altuera duen Mont Vinson igotzeko asmotan. Lortuz gero, Aconcagua, Hego Amerikako mendirik garaiena, besterik ez zaio faltako orain dela 18 hilabete Everesten hasi zuen apustuari amaiera emateko. 7 kontinentetako tontorrik altuenetara igoaz munduari buelta osoa ematea, alegia. Abenduan amaituko du bere helburua. Zorte on!

SALBA IRIARTE beasaindarra Errealaren behin-behineko entrenatzailea izango da, azaroaren 24an, Toshack bere kargutik bota ondoren. Iriarte Errealaren 2. entrenatzailea izan da 89/90 denboraldiaz geroztik.

BEASAIN-ALBACETE.

Errege Kopako hirugarren kanporaketa Albaceteren aurka jokatu beharko dute beasaindarrek urtarrilaren 4 eta 11n. Benito Floro, Derticia... gertutik ikusteko aukera paregabea izango da beraz Beasainen.

LEGORRETAN KOADRILEN ARTEKO FUTBOL TXAPELKETAK

aurrera jarraitzen du. 2 talde ezberdinetan banaturik honako 13 talde hauek parte hartzen dute: Ezereza, Gautxoriak, Txitxizotz, Masse Team, Zurrut, Kabi, Eta Abar, Jan da lo A, Jan da lo B, Baldarrak A, Baldarrak B, Izkilimili I, Izkilimili II. Talde bakoitzeko lehendabiziko laurak hurrengo fasera pasatuko dira. Partiduak larunbat arratsaldean eta igande goizetan jokatuko dira, eskoletan.

Fotozaharra

Idiazabalgo 1956ko 'Luistarren' txirrindu proba



1956. urteko 'Luistarren' txirrindu proba herrikoia argazkia dugu honokoa. Idiazabalen urtero egiten zen garai batean, eta bertan, herriko txirrindulariek hartzen zuten parte.

Ezkerretik eskuinera:

Esteban Arizmendi 'Exkerra', Luis Oiarbide, Migel Imaz, Antonio Telleria, Joxe Arrizabalaga eta Inazio Urkia.

LOINATZ

Taberna Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

Nagusia, 27 ☎ 88 20 07 BEASAIN



ILEAPAINDEGI MISTOA



Joan Iturralde, 5-7 (solairu-arte)
Tfnoa.: 16 11 05 BEASAIN

DAROU MOUSTY

Opari gaiak:

gerrikoak
boltsak
arropa hippyak.
Afrikan eskulanak



P-21 beheko solairua ☎ 88 96 96 ORDIZIA



Hurrengo emaitzaren zain

Rufino Iraolak ez du aurkezpen behar handirik Goierriin, are gutxiago GOIERRITARRA honetan: Zaldibia-ko berri ematen digu zintzo asko orrio-

tan, hamabostean behin. Horrez gain, bestelako iritzi eta artikulua ere eten- gabe argitaratzen ditu han-hemen. Bertsoarekin lotzen dugu gehienok, ordea: bat-batean izan ezik, bertsolari- tzako beste arlo guztietan utzi du bere arrastoa: antolatzaile, gai-jartzaile, epaimahaiko, kazetari, iritzi-emaile eta bertso jarrien egile.

Hemendik aurrera, berriz, langile nekagaitz honen beste alderdi bat ere ezagutu ahal izango dugu: literatur ida- zlearena. Izan ere, iazko Irun Hiria lehiaketa ospetsuan ipuin saria esku- ratu baitzuen Rufinok, eta orain, ia ur- tebete pasata, Kutxak argitara eman berri du ipuin saritu hura: "Dena dago zatitxo baten baitan".

Ipuinak zer kontatzen duen ez dizuet nik aurreratuko, bestela kendu egingo bainizueke irakurketaren jakinmina. Esan dezadan, halere, anai-arreba ar- teko liskar eta tirabirak direla gaia, ama

zaharraren gaixotasuna eta herentzia direla- eta, eta seme fraile gizajo sama- rra dela protagonista eta kontalari.

Gure hizkuntza ongi bai ongi men- deratzen duela ez zeukan frogatu beha- rrik Iraolak. Euskara ederra ezezik, beste dohain batzuk ere erakutsi dizki- gu honakoan: pertsonaien psikologia eta bihotz-buruetan sartzeko abilda- dea, gertaeren katea egoki tolestu eta askatzeko trebezia.

Ipuin bat gutxitxo zaigu benetako irakurzaleoi, baina besterik ezean gehiagoren irrika piztu digu. Talentu- rik ez duen batek ezingo baitu inoiz, egin ahalak eginda ere, ipuin on bat tajutu. Bat itxurazkoa egiten duenak, berriz, gehiago ere egin ditzakeela era- kutsi beharra izaten du. Zain gauzka- ba, Rufino, bilduma oso batekin noiz etorriko.

✍ Xabier Mendiguren



Liburu borobila

"Edo ibilgailuetara erabiltzeko es- cu-liburua" azpititulu luzea duena bi- dali zigun irakasle lanetan dabilen Bergarako Uned-etik, Tere Irastortzak. Niri "eta GOIERRITARRAri kuantu" dedikatzen zigun eleganteki beti do- toretasuna eta finezia erakutsi ohi duen gure lagunak.

Aspaldi ez zuen kaleratu libururik zaldibitarak, 86an eman zituen azke- nekoz "Derrotaren fabulak" eta "Osinberdeko kantoriak". Baina idazte ekintzaren gaineko hausnarketak egi-

tetik ez du utzi eta poetikaren zertara- koaz ere ari zaigu atal bateko zenbait poemetan. Adibidez: "Bakarren batek zerbait gogora dezan/ mintzatu/ baka- rren batek ahantz ez gaitzan/ idatzi/ iraungi arte iraun".

Beste adibide bat litzateke liburua ireki bezain pronto datorren ahapaldi hau: "Eta zenbat aldiz irakurri behar dira (poemak)? --Behin obligazinoz, Gazteluzarrek zionez, amodioz aini- tzez". Hortixe datorkio, parte batean behinepein, izenburua (debozio handi- rik gabekoak ere irakur bait ditzake poema solteak). Bestetik, Joanes Etxe- berrik XVII. mendean idatzitako "Ma- nual devotiozcoa, mezetara erabiltzeko liburua" eta bere manerak dira beste giltzarrietako batzuk. Liburu hau ira- kurtzea egokitu zitzaion: Etxeberrik infernuaz eginiko deskripzioak Dan- teren "Divina Comedia"koak baino gehiago hunkitu zuen Irastortza.

Terek badaki poesia gutxi irakurtzen dena, baina genero horretan aritzen da gustoen, esan nahi duena adierazteko poesia oso baliagarria zaio. Eta bete- betean asmatzen du. Denbora eta bizi- tza elkar-loturik agertzen dizkigu ia

obsesioraino. Isiltasuna eta "bakarta- tea", bere hitzetan. Lagunak: "Batzuk maite izaten ditugu/ eta hala ere ez di- tugu estimatzen./ Beste batzuk estima- tzen ditugu/ eta hala ere ez dakigu mai- te izaten./ Eta era berean/ sinisten di- tugun guztiak ez dira egia/ eta aldiz egia sarri/ ez da sinisteko modukoa izaten". Lagun-ohiak: "Gorde hituna- nak, denak,/ hire aurka dauzkan,/ jaki- zan, beraz, orain,/ esan behar dunan guztia ere/ aurka gerta dakikenala".

Guk esandakoak granorik ere ezin lezakete gehitu edo goratu goierritarra- ren alea. Ez dakigu esplikatzeko bere xumetasunean eta laburrean zein gauza politak, juxtu egokienak, jarri dizki- gun. Poesia ezin da esplikatu, norberak irakurri baino. Eboluzio ikaragarri polita sumatzen diogu, badu zer esa- tekorik, bai eta bere buruari: "Eta zer, zaharrak baleza eta gazteak baleki/ ere/ zer?". Liburu borobila. Zirkuluaren koadratura edota jauzi kuantikoa ote den ez dakit, baina gogoangarri askoa bai kuantu!

✍ Jon Arano

Goierritarrak eta Durangoko azoka

Beste urte batez gehiago, iritsi da Durangoko euskal liburu eta diska azokaren garaia. Abenduaren 7tik 11ra izango da aurten zita. Goierritar idazle eta itzultzaileen nobedadeak ugariak dira, poesian, itzulpenetan eta, batez ere, haur literaturan.

Haur eta gazteei zuzendutako literaturak urtetik urtera gora egiten du gure artean. Goierritar idazle eta itzultzaile gehienak ere arlo horretan murgildu dira. Joxeantonio Ormazabal zegamarrak 'Hitzak jostailu' ipuina kaleratu du Elkar argitaletxearekin. Erein-ek Lazkao Txiki haur munduan sartu asmoz, Mikel Mendizabal eta Mikel Barandiaranen eskutik, 'Lazkao Txiki, gizon txikiaren handitasuna' lana plazaratu du. Patxi Zubizarreta hiru itzulpenekin dator: 'Ipuinkaria' (Pamiela), Betsi Byarsen 'Burbuila, mila kiloko arraina' eta 'Azeri beltza' (Elkar). Xabier Mendi-guren Elizegik Urs M. Fiechtnerren 'Amaren historia' itzuli du.

Helduentzako itzulpen lanetan gogor aritu zaigu Iñaki Mendiguren. 4 itzulpen egin ditu helduen literaturan: Robert Luis Stevensonen 'Altxor uhartea', Heinenannen 'Arrotza' eta 'Herio erregina' eta Mark Twainen 'Tom Sawyerren abenturak'. Guztiak, Elkarrekin.

Poesia Tere Irastortzak idatzi digu: 'Manual devotio gabecoa'. Liburu honen kritika hurrengo orrian duzu irakurle.



Antton Ibarguren "Larrun"en

Antton Ibarguren, Altzagako abokatu ezaguna, orain dela 5 urte pasatxo hil zen istripuz Pakistan eta Tibet artean dagoen Gasherbrum II mendiaren gailurra (8.035 m.) igo ondoreneko beherako bidean. Altzagarraren heriotzaren 5. urteurrena bete dela eta, Durangoko Azokarako atera behar den hurrengo alearen azala eta barruko 34 orri eskeiniko dizkio "Larrun" aldizkari sendoak, "ezker abertzaleko gizon inportantea" zela argudiatuz.

40 urte eskas zituen hil zen garaian eta emaztea eta bi haur utzi zituen. Azkenaldian "publikoki gutxi ageri zen gizona zen Antton Ibarguren. Ez Herri Batasuna barruan eta ez instituzioetan kargurik ez zeukan. Baina lanean jarraitzen zuen betidanik landutako adarretan: abokatu laboralista, neka-

zarien jurista, euskalgintza... Eta politika ere gertutik jarraitzen zuen, harreman mundu zabal baten jabe izanik eta euskal herrigintza utzi ezinik", idazten du Pello Zubiriak dossier zabalaren sarreran.

Dena irakurtzeko aukerarik izan ez badugu ere, Anttonen bizitzako kontakizun ugari agertuko da bertan: lehengo moldeko nekazaritzako semea izanik, mundu horrek beretzat zuen erakarmena eta atxikimendua; nola bihurtu zen baserritarren abokatu, izan ere txikitatik esan omen zuen behin baino gehiagotan hori izan nahi zuela; ezker abertzaleko militante, kargudun, bul-

tzatzaile kritikoaren perfila; langileentzako zerbitzu juridikoak sortzerakoan "Berdin" Taldeko mahaiburuan egona zen, Zuzenbidearen funtzionamendua euskaratzeko egindako ahalegina ez da ahazten ez eta mendi eta abenturarako zuen zaletasuna: ilusio horren atzetik joanda hil zen...

EHNE baserritarren sindikatuaren eta "Zehatz" pentsamenduko aldizkariaren sortzaile, gizon argi, jantzi, ausart eta zintzoaren gaineko berri eta zaharren egarria duenak badauka, beraz, non asetu hori. Izan dadila goierritar haundi (baina ahaztu xamartu) haren ekarpenak gogorarazteko.

 Loinaz Agirre eta J.A.



ANZIZAR, S. A.

Autoelektrizitatea
eta mekanika

Volkswagen
taldea

Beasain-Zumarraga, 46 Kma.
☎ 88 17 00 - 88 17 04 BEASAIN

erein argitaletxea

Euskal kulturaren zerbitzuan

Tolosa Etorbidea, 107 - 20009 DONOSTIA — Telf.: 21 83 00 - 21 82 11



"FABRIKA HAUNDIA" AIRETIK